

2011ko apirila



Osakidetza

HADE

osatz

MONOGRAFIKOAK

Zalantzak

Glosategiak

Euskara - Gaztelania

Gaztelania - Euskara

ZALANTZAK



CD

HIZTEGI ZALANTZAK ARGITZEN



AURKIBIDEA

3

...

Administrazio sanitarioko lexikoa

5

...

Zalantzak

27

...

Glosarioak: Euskara - Gaztelania
Gaztelania - Euskara



SARRERA

Esku artean duzu Osatuz egitasmoaren barruan argitaratzen dugun bigarren monografikoa. Lehendabizikoa hizkuntza-eskakizunetako azterketen ingurukoa izan zen; bigarren honetan, berriz, lexikoa da jorratuko dugun gaia.

Bi ardatz nagusiren bueltan dago materiala eratuta. Batetik, arlo sanitarioarekin lotutako terminologiaren inguruan izaten diren hainbat zalantza lantzen dira. Bestetik, Osatuz aldizkariaren bost urteko ibilaldian agertutako hiztegiaren bildumatxo bat osatu dugu, glosario modura.

Osasun-gaiekin lotutako terminologiarekin sortutako zalantzak argitzeko, UZEIko Jabier Agirre pediatarren lankidetzak izan dugu, arlo honetan duen urte luzeetako eskarmentua baliatuz. Bereak dira hemen aztertzen diren 40 gaiak. Material hori CD batean ere jasota dago, Euskadi Irratiko estudioetan grabatu baitziren elkarrizketa modura.

Lexiko-bilduman 600 bat hitz jasotzen dira, hain zuzen ere eremu hauekin lotutakoak: administrazio sanitarioa, medikuntza, erizaintza eta arlo sozio-sanitarioa. Hitzak aurkitzeko, euskaratik nahiz gaztelaniatik abiatuta egin daiteke. Glosarioko hitz guztiak arestian aipatutako Jabier Agirrek gainbegiratuak izan dira.

Monografia hau osatzeko, Juan Elorriagak idatzitako artikulua dago hasieran; bertan, lexikoaren normalizazioak administrazio sanitarioan egin duen bidea eta aurrera begira dituen erronken berri ematen digu Osakidetzako euskara-teknikariak.

Eguneroko lanerako, edo kontsultak egiteko baliagarria izatea da monografiko honen asmoa.

Egileak:
HABE eta Osakidetza


Diseinua eta maketazioa:
Truke / Zirimarra

Ilustrazioak:
Wentxi / Josetxo

Inprimategia:
Gertu

Legezko gordailua:
SS-850/06
ISSN: 1886-6984

Euskal Autonomia Erkidegoko
Administrazio Orokorra
HABE
www.habe.euskadi.net
Tel.: 943022600
Faxa: 943022601
e-posta: argitalpenak@habe.org



Administrazio sanitarioko lexikoa

Juan Elorriaga

Osakidetzako Erakunde Zentraleko euskara-teknikaria

Hiztegi sanitarioa Euskal Autonomia Erki-degoko Osasun Sailean eta Osakidetzan egindako lanari esker, bildu eta eraldatzen jarduten dugu. Izan ere, euskara-teknikariek eta zerbitzu-erakundeek zerikusi handia izan dute zeregin horretan.

Jakin badakigu lexiko sanitario eta administratiboa osatzea ez dela egun bateko lana, urte batzuk igaro baitira lehenengo pausoak ematen hasi zirenetik. Datu-base terminologikoak eguneroko lanaren ondorio baino ez dira, eta hortik hasi da eraikitzen erabili beharreko hizkera egokia. Definizio unibertsal baten arabera, itzulpenaren zeregina da **jatorrizko testu** edo hitz batetik abiatuta esanahi bereko testu edo hitz bat aurkitzea beste hizkuntza batean; beraz, testuek edo hitzek mezu berbera komunikatu behar dute, esanahi bereko adierazpideak sortu behar dira.

Hizkuntzaren egokitzailak

Jatorrizko testua edo hitza, gehienetan, gaztelaniaz jasotzen dugu Osakidetzan, gero euskarara itzultzeko. Onerako edo txarrerako, erdara da **abiaburu** (ia) beti. Ondorioak ondorio, ez da sakon hausnartu behar jabetzeko bi hizkuntzak ez daudela egoera linguistiko berean, eta egoera horren aurrean euskarak bere mekanismoak garatu behar dituela: **maileguen** egokitzapena, **eratorbidea**, hitz-elkarketak, hitz berriak, etab. Bata zein bestea aukeratzeko trantze erabakigarrian, irizpide bat finkatu behar izan dute hizkuntza-egokitzailak.

Testuinguru horretan, sinkronia/diakronia, edo ezagutza/erabilera aukeratu beharrean dihardute eremu honetako profesionalek. Terminologia-adituek jaso eta erabilitako hizkuntza ez da izaten asmatutako hizkuntza berria, eurek egokitutakoa baino. Hortaz, **itzultzaile** baino aproposagoa litzateke **egokitzaille** hitza erabiltzea; hartara, hobeto emango genuke aditzera euren zeregina eta hizkuntzarekiko harremana. Horren harira, egokitzaille baten hitzak erabiliz, "hitz bat aldatzeko prozesuan erabiltzaileen komunitateak eman behar dio hasiera eta bukaera prozesuari. Hau da, langileek, pazienteek, teknikariek edo zientzialariek sortu, erabili edota baztertzan duten heinean, sortu, erabili edo baztertuko dira hitzak, eta ez pertsona edo batzorde batek hala erabaki duelako".

Terminologia finkatzeko zeregin hori hainbat eremutara ari da zabaltzen: errotulazioa, idazkiak, ahozko mezuak, publizitate-kanpainak etab. Beraz, begira diezaiozun historiari, **eragile** guztiekin aztertu ahal izateko egungo lexikoaren egoera.



Administrazio Sanitarioko Oinarrizko Hiztegia



Dagoeneko pasatu dira urte batzuk Administrazio Sanitarioko Oinarrizko Hiztegia argitaratu zenetik, hain justu ere, 1999ko apirilean plazaratu baitzen. Nabarmentzekoa da Osakidetzaren barruko terminoak, izenak eta siglak finkatzeko egindako esfortzua; ahalegin horri esker, hasierako **anabasa** eta nahasmenetik gaurko hizkera zuzen, egoki eta

koherenteago batera igaro gara, kanpoko nahiz barneko komunikazioari dagokienez.

Bien bitartean, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan ez dira jaso (oraindik) Osakidetzako hiztegi horretan bildutako termino batzuk: *atenditu*, *zeladore*, etab. Aldi berean, Osakidetzaren barruan ere ez dago erabateko adostasunik, eta zerbitzu-erakundeen artean badago, lantzean behin, termino baten edo besteren arteko aldea. Horren ondorioz, errotulazioan, adibidez, zenbait izen era ezberdinetara idatzita ikusten dira ospitale batean edo bestean. Horrelakoak gertatzen dira hizkuntzaren normalizaziorako bidean, eta **ulergarritasuna** oztopatzen ez duten bitartean onartu beharrean gaude gertakari horiek. Izan ere, askotan termino bat definitzeko, aukera bat baino gehiago izan ohi da; areago, aukera bakarra egotea hizkuntzaren ahuleziatzat jo daiteke.

Gaur egungo panorama

Egun, ordea, **prestakuntzak** eta **ezagutzak** aurrera jo dute, eta horren **berme** diren euskara-teknikari profesionalak jorratzen dute ezarri beharreko terminologia. Osakidetzako Erakunde Zentraleko itzulpen-zerbitzuak bere gain hartzen du teknikaririk ez duen zerbitzu-erakundeetako testuen euskaratzea.

Azken urteotan, tresna informatikoei aparteko garrantzia hartu dute itzulpengintzan, eta programa informatikoei esker –Trados, Wordfast eta memoria-programak, besteak beste–, aurrerapen nabaria egin da denboraren eta itzulitako bolumenaren aldetik. Lehen baino arinago eta hobeto itzultzen da gaur egun.

Geroari begira baikor gaude eta **bateratze**-lanak berebiziko garrantzia izango du. UZEI, EHU, Euskaltzaindia eta IVAPekin batera, Administrazio Sanitarioko Oinarrizko Hiztegia osatu, gaurkotu eta finkatu behar da, Osakidetzaren osoan era bateratuan erabiltzeari begira. Asmo handiko lana izan beharko litzateke: batetik, espezialitate, kategoria eta unitate guztien izenak jaso beharko lirateke, eta bestetik, paperean argitaratzeaz gain Euskalterm-en ere argitaratuko beharko litzateke hiztegi hori, hainbat gizarte-arlotako eragileen eskura egon dadin: kazetari, **hezitzaile**, idazle eta administrazio guztien eskura. Horixe, beraz, etorkizuneko **erronka** eta erantzukizuna administrazio sanitarioko lexikoaren alorrean.



ABIABURU.- Abiapuntu. *Punto de partida.*

Point de départ.

ANABASA.- *Confusión.* Confusion.

BATERATZE.- *Unificación.* Unification.

BERME.- *Garantía.* Garantie.

EGOKITZAILE.- *Adaptador/a.* Adapater/trice.

ERAGILE.- *Agente.* Agent.

ERATORBIDE.- *Derivación.* Dérivation.

ERRONKA.- *Desafío.* Défi.

EZAGUTZA.- *Conocimiento.* Connaissance.

HEZITZAILE.- *Educador/a.* Éducateur/trice.

JATORRIZKO TESTU.- *Texto original.*

Texte original.

MAILEGU.- *Préstamo.* Emprunt.

PRESTAKUNTZA.- *Formación.* Formation.

ULERGARRITASUN.- *Comprensibilidad.*

Compréhensibilité.



ZALANTZAK

Hemen agertzen diren zalantza guztiak Euskadi Irratian emititutakoak dira, Osatuz programaren barruan. Gai bakoitza elkarrizketa-formatuan azaltzen da, esatariaren eta Jabier Agirre adituaren arteko solasaldiak baitira. Guztiak aldizkariarekin batera doan CDan dituzu entzungai.

- 01 Gaitz kronikoak eta gaitz akutuak
- 02 Zer dugu muskulu hitzaren kontra?
- 03 Toxikoak eta pozoiak
- 04 Obramendua
- 05 Txertoa
- 06 Bihotzekoak jota
- 07 Obesitatea, hitz madarikatua
- 08 Elbarritasun guztiak ez dira berdinak
- 09 Odol-hodiak
- 10 Zaintiratua
- 11 Berreritzea vs gaixoberritzea
- 12 Bertigoa ez da zorabioa
- 13 Zuhurragina
- 14 Hezurren izenak euskaraz
- 15 Odol-isuriak
- 16 Urdail-hesteak
- 17 Sagarra ez da jateko bakarrik
- 18 ADN ala DNA esan behar da euskaraz?
- 19 Izendapen ugari dituen gaitza: elgorria
- 20 Zer ote da nafarrerria?
- 21 Soin eta soinketa
- 22 Anbulantzia medikalizatua
- 23 Zer adierazten dute tentsio-zifrek?
- 24 Medikuak eta gaixoak elkar ulertzen al dute?
- 25 Digeritu eta digestio
- 26 Begia izan al daiteke nagia?
- 27 Hiperaktibitate-sindromea
- 28 Zelari eta zeladore
- 29 Agerpen farmazeutikoak
- 30 Kirrimarroak eta zizipazak
- 31 A ze pareta area eta barea!
- 32 Preserbatiboa esateko zailtasunak
- 33 Inork esaten al du pneumonia euskaraz?
- 34 Etxeko botikina euskaraz betetzeko
- 35 Bihotzak ze soinu egiten ote du euskaraz?
- 36 Froga eta proba ez dira gauza bera
- 37 Azaleko kontuak euskaraz
- 38 Marranta edo mafrundia
- 39 Sor eta gor gelditu
- 40 Heste sobrea benetan sobran al dago?



01 GAITZ KRONIKOAK ETA GAITZ AKUTUAK

Esataria.- Gaixotasun infekziosoetan batez ere oso maiz erabiltzen den bikote bat aipatuko dugu gaurkoan: *kronikoa* eta *akutua*, alegia. Zeri esaten zaio **kronikoa**?

Jabier Agirre.- Ba, denboran zehar luze irauten duenari. Eta horrela nahiko esamolde ezagunak dira “*halakok bronkitis kronikoa du*”, edo “*komeni da gaixo kroniko bat gripearen kontra txertatzea*”, eta abar. Horietan badakigu prozesua luzea dela, aspaldikoa, edo gaixo horrek gaitza aspalditik duela.

E.- Gaitz kronikoaren kontrakoa izendatzeko, ordea, zalantza gehiago daude euskaraz hitz egiten dutenen artean.

J.A.- Bai, guk **akutua** proposatzen dugu, baina hasiera azkarra, iraupen laburra eta sintoma nabarmenak dituen gaixotasunari, hau da, aurrekoaren kontrakolari, batzuek beste izen batzuk ematen dizkiote. Entzuten dira hepatitis zorrotza, edo otitis bizia edo larria..., eta kontuan hartu behar da akutua izateak ez daukala inolako zerikusirik larritasunarekin, edo zorrotzasunarekin, edo bizitasunarekin, hau da, akutua da azkar hasi eta azkar bukatzen dena.

E.- Horrela, bronkitis kronikoaren beste muturrean dagoenari bronkitis akutua esango diogu.



02 ZER DUGU “MUSKULU” HITZAREN KONTRA?

Esataria.- Kirol-saioak oso gustura ikusi eta entzun ohi ditugu euskaraz, baina bada deigarria den esamolde bat. Esfortzu fisikoaren ondorioz gertatzen da batzuetan zuntz muskularrak haustea, eta lesio hori adierazteko “*haragi etena*” edo “*gihar haustura*” bezalakoak aipatzen dituzte normalean oso euskara txukunean aritzen diren esatariak.

Jabier Agirre.- Bai, **haragi etena** ulertzekoa da, lesio horrek bat-bateko min zorrotza sortzen duelako, eta hori adierazteko oso modu grafikoa delako haragia eten egin dela esatea. Baina giharra hautsi egin direla esatea ez da ulertzen, zeren **gihar** hitzak muskulua zati bat bakarrik hartzen du, hiztegietan jasota dago: gizenik gabeko haragia edo haragi zatia da giharra, eta hortik sortu dira hirugiharra, txerri-giharra, zurgiharra eta horrelakoak.

E.- Tira, baina muskulua kontzeptuak giharrez aparteko beste hainbat osagai ere hartzen ditu bere barruan.

J.A.- Bai, eta horrexegatik da “*gihar*” hitz nahiko desegokia **muskulua** izendatzeko. Muskulan badaude muskulua zentzu hertsian, zuntz muskularrak bestela esanda, eta gero badaude gainerako beste estalki edo beste baina batzuk, eta horiek ez dira giharrarekin sartzen. Horregatik hobe dugu muskulu hitza erabiltzea gihar hitza erabiltzea baino.



03 TOXIKOAK ETA POZOIAK

Esataria.- Sarritan entzungo zenuten intoxikazio hitza, medikuen edo erizainen ahotik batez ere.

Jabier Agirre.- Bai, hori egokia da, baina jendearen artean askotan bada erreparo bat *intoxikatu* edo *intoxikazio* hitza erabili ordez *pozoitu* edo *pozoidura* erabiltzeko, eta nik uste dut ez direla egokiak. Hiztegietara jotzen badugu, Euskal Hiztegiak, adibidez, **pozoia** hitza horrela definitzen du: “Organismo baten heriotza edo hondamendi larria dakarren edozein gai”, eta sinonimo bat badauka: *edena*. Azken finean, pozoia ‘benenoa’ besterik ez da. Orduan, pozoitzea izango litzateke ‘pozoia hartuz, harraraziz edo emanaz norbait hiltzea edo hiltzorian ezartzea’.

E.- Eta zerekin lotu izan da beti pozoia, zeren adibidez literaturan askotan aipatu den hitza da.

J.A.- Bai, literaturan batek beste bati pozoia ematen baldin badio hil egin dezake, baina botiken kasuan, edo... betidanik aipatu izan da sugeak pozoia ematen duela, edo belar jakin batek pozoitu egin dezakeela, hori ondo dago, baina hortik aparte botika batek egin dezakeen kaltea edo substantzia batek eragin dezakeen kaltea aipatzeko pozoia erabiltzea nik uste dut ez dela egokia.

E.- Beno, eta adibide bat jarriko diguzu?

J.A.- Bai, adibidez, botika bat daukagu etxean, eta horren prospektura jotzen baldin badugu, prospektuan ez da sekula aipatzen ez pozoirik ez pozoidurarik, beti aipatuko da botika hori neurritz kanpo erabilia edo gaizki erabilia **toxikoa** izan daitekeela edo botika horrek **intoxikazioa** eragin dezakeela, baina hortik pozoira, edo pozoitzera, edo pozoidurara, oso urrutiko kontua da.



04 OBRAMENDUA

Esataria.- Osasunaren inguruko gaiak aipatzerakoan, badira eremu semantiko batzuk pertsonalagoak

eta intimoagoak gertatzen direnak. Eta eremu horietan gaudenean, harreman sexualen edota gorputzeko jario jakin batzuen inguruan mintzatzeari egokitzen zaigunean, askoz ere lotsatiago edo uzkurrago agertzen gara, gehiago kostatzen zaigu kontu horiez hitz egitea. Gaia horrelakoxea izanik, garrantzi handikoa da hitzak ere ondo aukeratzea, eta adibide batzuekin hobeto ulertuko dugu.

Jabier Agirre.- Bai, begira, pentsa ezazu gaixo bat hurbiltzen zaizula kontsultara eta beherakoa daukala. Orduan, medikuak galdera batzuk egin behar dizkio, beherako horiek nolakoak diren, zerk sortuak diren eta abar jakiteko. Eta aurreneko galdera egin orduko hor agertzen zaizkigu **kaka** edo **kaka egin**, edo horrelako esamoldeak, eta askotan bai medikuarentzat eta baita gaixoarentzat ere izan daitezke gogorrek, izan daitezke gordinegiak hitz horiek. Eta orduan, erreparoa edo zailtasuna baldin badaukazu, hizkuntzak asmatu ditu beste hitz batzuk ere, beste hizkuntza guztietan egin den bezala, eta hitz horiek, adibidez **eginkariak**, **obramendua** edo **libratu** bezalakoak, izan daitezke askoz ere erosoagoak edo errazagoak esateko, bai medikuarentzat eta baita gaixoarentzat ere.

E.- Agian ez dira euskaldun guztientzat ezagunak, baina kontsultan medikuaren eta gaixoaren arteko elkarriketa batean erabiltzeko modukoak gertatzen dira, inolako zalantzarik gabe. Halaxe da, ezta?

J.A.- Bai, nire esperientzian behintzat hitz edo esamolde horiek oso ondo funtzionatzen dute, eta zer esanik ez ahoko mailatik hizkuntza idatzira pasatzen baldin bagara. Pentsa ezazu hori botika baten errezeta batean jarri behar baldin baduzu, edo gaixoari analisi bat egiteko esan behar baldin badiozu. Horrelakoetan **kaka** edo horrelako hitzak erabiltzea baino askoz ere finagoa, dotoreagoa da **eginkariak**, **obramendua** edo horrelakoak erabiltzea.

.....



05 TXERTOIA, ZER ESATEKO ZEHAZKI?

Esataria.- Gaur egun, urtero gripearen kontra txertatzea komeni dela entzuten dugu, eta gero eta gehiago direla umeen txertaketa-egutegian jartzen zaizkien txertoak. Eta ez dago zalantzarik esamolde horien azpian dagoen **txerto** hitzaren esanahia ulertzeko. Zer da, bada, txertoa?

Jabier Agirre.- Ba, **txertoa** da prestakin mikrobiano bat, gorputzean sartu ondoren gaitz baten kontrako immunizazio aktiboa eragiten duena. Horrela esanda badakigu txertoak hainbat gaitzetatik babesten gaituela, eta txertoak daude gaur egun, zuk esan duzun bezala, era askotakoak, bai injekzioz edo bai ahoz hartzen direnak, hainbat gaitzen kontra.

E.- Baina badira beste kontu batzuk, euskaraz **txerto** edo **txertatu** hitzekin izendatuz gero, nahasmena areagotzea besterik lortuko ez genukeena.

J.A.- Bai, eta gezurra badirudi ere, hitzaren erabilera horiek oso jatorrak dira euskaraz, baina beste eremu batzuetarako; adibidez, landare baten enborrean edo adar batean beste landare baten adarra jartzeari euskaraz betidanik **txertatu** esan zaio, eta edozein nekazarik, edozein baserritarrek oso ondo ulertuko luke hori **txertatzea** dela. Baina txerto hori, beste modu batera **mentatu** ere esan izan dena, **mentu** hori, aurreko txertoarekin lotuko bagenu, hor sekulako nahasmena sortuko litzateke. Eta gero, bigarren adiera, landare adiera honetatik abiatuta, larruazaleko puska bat hartu eta erredura bat dagoen lekuan txertatzea, horri ere **txerto** esango bagenio, euskarazko gaitz infekziosoen kontu horretatik abiatu eta beste bi adiera horiei ere **txertatu** edo **txerto** esango bagenie, zehaztasunaren kontra joango ginateteke eta nahasmena areagotu besterik ez.

E.- Beno, beraz hobe genuke txertoa gaixotasun infekziosoetarako uztea eta gainerako prozeduretan beste sustrairen bat erabiltzea. Eta gauza bera gertatzen da transplante hitzarekin ere.

J.A.- Bai, bada beste moda bat edo mania bat, “*halakori bihotza aldatu diote halako ospitalean*”. Beno, hori maila apalean, herriko lagunarteko mailan, oso ondo ulertzen da, bihotza aldatu egin diote, baina gerta liteke konfusioa, zeren askotan aldatu eta transplantatu sustraiak batera ager daitezke eta bihotza aldatu egiten dela esan nahi dugunean bihotz-transplantea aipatu nahi dugu. Beraz, maila zientifikoan, gaur egun ez da bihotza bakarrik, giltzurruna ere **transplantatu** daiteke, eta nahasketak horiekin hasiko bagina, ez genuke inolako mesederik.

.....



06 BIHOTZEKOAK JOTA

Esataria.- Sarritan zehaztasuna eta jatortasuna kontrajartzen dira, elkarren aurkakoak balira bezala. Batzuek euskarazko hitz jatorrak erabiltzea nahia-

go izaten dute, aukera horrek mezuaren zehaztasuna zaildu edo oztopatzen badu ere.

Jabier Agirre.- Bai, adibidez, “*Joxek bihotzekoa izan zuen duela hiru aste eta medikuak kontuz ibiltzeko agindu dio*”. Hori entzuten dugunean oso ondo ulertzen dugu Joxek bihotzeko gaixotasunen bat izan duela eta bat-batekoa gainera, baina zer da gaixotasun hori? Miokardioko infartua da, bular aldeko angina da, edo bestelako atakeren bat da? Orduan, zernolako prozesua izan duen medikuak derrigor jakin behar du, **bihotzekoa** oso esamolde baldarra delako.

E.- Eta bihotzekoaren gauza bertsua gertatzen da *gibelko* hitzarekin ere?

J.A.- Bai, nik eduki ditut halako eztabaidak lagunekin eta oso hitz jatorra da. Hiztegietan begiratu, eta Gipuzkoako hainbat tokitan esaten da, *Gibelkoak aurpegia horitu dio halako gaixori* edo *gibelkoak daukanarentzat arrautzak jatea da gauzarik okerrera*. Baina hor azpian zer dago, hepatitis simple bat, zirrosi bat, alkoholak hainbat urtean eragindako prozesu bezala, edo gibelko minbizia dago? Hau da, *gibelko* denean badakigu gibelko gaitza duela, baina batetik bestera sekulako pausoa dago.

J.A.- Beno, horregatik zein zehaztasun-maila nahi dugun kontu. Sarritan oso jatorrak bai, baina zehaztetik gutxi duten esamoldeak erabili orde zindapen zehatzak erabiltzea komeni da-eta.

.....

07 OBESITATEA, HITZ MADARIKATUA

Esataria.- Gorputzaren itxurak garrantzi handia hartzen du gaur egun gizarte aurreratuetan, eta hori bakarrik balitz, gaitzerdi. Okerragoa da gorputz lirainen ideal horrek zenbaitengan eragiten dituen kalteak.

Jabier Agirre.- Bai, eta kalteak aipatzeko aipatu behar dira hitzak aurretik. Gaur egun “argala” eta “gizona” bezalako bikote batek nekez balio du gizartean gizentasunari eta obesitateari ematen zaion garrantzia deskribatzeko. Jakina da gehiegizko pisuak kalte ugari ekartzen dizkigula, soberako kilo horiek oso lotuak daudelako hainbat gaixotasunen sorrerarekin, baina gauza bat da gehiegizko pisua edo soberako kiloak edukitzea eta beste gauza bat oso diferentea da obesitatea.

E.- Gorputz-masaren indizea da gaur egun adituek gehien erabiltzen duten irizpidea, ezta?

J.A.- Bai, eta oso irizpide zientifikoa da. Hartzen da batetik pertsonaren garaiera edo altuera zentimetrotan, bestetik hartzen da bere pisua kilotan eta formula oso erraz baten arabera neurtzen da pertsona hori zein mailatan dagoen. Egon daiteke indizea maila normalean, egon daiteke gehiegizko **gainpisua** esaten zaion hurrengo mailan, eta egon daiteke **obesitatean**, hau da, normaletik eta gize-netik aurrera, dezente aurrera dagoen beste maila batean.

E.- Obesitate hitza aipatu duzu.

J.A.- Bai, betiko kontuan gaude. Gauza bat da jator hitz egitea, euskarazko hitzak erabiltzea, eta gizona eta lodia eta hortik ateratzen direnak hor daudela jakitea, baina gizentasuna, loditasuna eta obesitatea oso diferenteak dira. Beste hizkuntza gutzietan egiten den zehaztasuna eta egiten den sailkapena euskaraz ere berdin-berdin egin beharko genuke.

.....

08 ELBARRITASUN GUZTIAK EZ DIRA BERDINAK

Esataria.- Euskarazko hiztegietan *elbarri* hitzaren bila abiatuz gero, esanahi oso zabaleko kontzeptuarekin egingo dugu topo: “eritasun edo ezbeharren baten ondorioz ezin mugiturik gelditzen dena”. Hori omen da elbarria. Zehaztasun handirik gabeko kontzeptua da hau, ezta?

Jabier Agirre.- Bai, zoritxarrez, bai. Egia da elbarri oso hitz jatorra dela, Biblian eta erreferentzia asko dauzkana, eta betidanik euskaraz erabili dena, baina gaur egun ñabardura ugari dauzka kontzeptu honek, batetik daude ñabardura legalak, eta bestetik daude ñabardura ekonomikoak. Zu lanera ezin etorririk zaudela egoera batean baldin bazaude, hor ez zaude elbarri, hor **aldi baterako ezintasuna** dago tartean. Eta horrek dauka bere ondorio legal eta ekonomikoa. Edo istripu handi baten ondorioz ezertarako gai ez zarela gelditzen baldin bazara, ez lanerako, zure lan normalerako, eta ezta beste edozein lanetarako ere, hori izango da **erabateko baliaezintasun iraunkorra**. Gainera hor familia asko luzatu daiteke: *balio-urritasunak*, *gutxiiegitasunak*, *ezintasunak* eta abar. Hor daude kontzeptu asko familian, nahas-mahasean, eta horiek guztiak elbarritasun hitzarekin eman nahi izatea edo perlesiarekin, Euskaltzaindiak Hiztegi Batuan dioen bezala, hori nik uste dut izugarritzko astakeria dela.

E.- Eta *paralisia*? Hitz hau zehatzagoa da?

J.A.- Beno, **perlesia** eta **paralisia** azken finean hitz bera dira. Badirudi euskarak orain urte asko paralisi hitz grekotik perlesia hartu zuela, baina parali-siarekin esan nahi dena da sentikortasunaren, hau da, sentitzeko gaitasunaren, edo mugikortasunaren, hau da, mugitzeko gaitasunaren galera, hainbat arrazoik sortua. Horrek elbarritasunarekin duen lotura oso txikia da. Gaur egun gorputza paralitiko gera daiteke, gorputz erdia, gorputz osoa, segun eta nolako jatorria daukan, eta horri perlesi edo elbarri edo horrelako hitzekin esan nahi izatea nik uste dut alferrikakoa dela.



09 ODOL-HODIAK

Esataria.- Odola da gorputzeko garraio-sistema, eta bere eginkizun nagusia bizirik dauden ehun guztietara elikagaiak eta oxigenoa eramatea da. Ondoren, ehunetan sortzen diren hondakinak jaso eta gorputzaren tenperatura konstante mantentzen laguntzen du. Hori guztia egiteko etengabeko zirkulazioan dabil gure gorputzean zehar.

Jabier Agirre.- Bai, zirkulazio hori hasten da bihotzean. Zergatik? Ba, bihotza delako ponpa oso indartsu bat, eta bihotzak egiten duen taupada bakoitzeko bost bat litro mugitzen dira, bihotzetik hasi eta gorputzeko organo guztietara. Nola mugitzen da odol hori? Ba, **arteria** izeneko hodi batzuetan. Arteria horiek hasieran lodi samarrak dira eta poliki-poliki adarkatuz doaz, gero eta meheago bihurtuz kapilar izeneko hodi fin-fin batzuetara iristeraino. Gero kapilarrak berriro poliki-poliki hasten dira gizentzen, gero eta lodiagoak egiten, eta **vena** edo **zain** izeneko odol-hodi lodiago bihurtzen direnean, zirkulazio guztia atzera dator eta bihotzeraino iristen da. Eta horrela ixten da zirkulazioaren zirkuitua.

E.- Ikusi dugunez, arteriak, kapilarrak eta zainak dira hurrenez hurren odol-hodi horiek. Zergatik aukeratu hitz horiek euskaraz?

J.A.- Ba, batetik, beste hizkuntzetan ere bereizi egiten direlako, arteriarentzat ez genuen euskaraz hitz jatorrik, beno, bazegoen soluzio posible bat, orain ia 100 urte baino gehiago Debako eta Itziarko bi medikuk egin zuten euskaraz eta erdaraz liburu bat, liburu zoragarria, oso gutxi ezagutzen dena, *Herriko jendeentzat osasun-legeak eta medikuntzako argibideak* izeneko bat, eta bertan proposatzen

zituzten *zain gorria* eta *zain urdina*, hau da, bazekiten zainak zirela, bazekiten batean odola nolabait oxigenatua iristen zela bihotzetik hodietara, eta bestetik, zainetan edo gaur egun bena deitzen diogun horietan odola “zikina” edo oxigenatu ondorengoa zetorrela, eta *zain gorri* eta *zain urdin* proposatu zieten bi horiei. Nik uste dut gaur egun *zain gorrik* nekez balioko lukeela *arteria* hitzak ematen duen familia guztia deskribatzeko, eta horregatik nahiago nik arteria lehenengoei, gero kapilar, eta azkenik bena edo zain esatea.



10 ZAIN TIRATUA

Esataria.- Zaintiratu hitzean bi osagai elkartzen dira: *zaina* batetik eta *tiratua* bestetik. Aurreko batean zaina odola ehunetatik bihotzera atzera itzultzen duen odol-hodia dela esan genuen. Nola ulertu kasu honetan zainak hartzen duen zentzua?

Jabier Agirre.- Bai, ondo esan duzun bezala, zaina hitz oso-oso polisemikoa da, hainbat adiera ditu. Edozein hiztegitara jotzen badugu, euskaraz, noski, ikusiko dugu *zain* hitzak hamaika, baina zinez hamaika, esanahi edo adiera dituela, eta askotan oso lotuak bata bestearekin, hurbilekoak diren arren. *Orotariko Euskal Hiztegi*a jotzen badugu, adibidez, *zaina* hitzarentzat dauzkagu batetik odol-hodia, lehen aipatu duguna, edo sustraia, arbola batek eduki ditzake zainak lurrera sartuak, edo funtsa, edo nerbioa, kirioentzako ere *zain* erabili da, edo tendoia, kasu honetan dabilen bezala, edo leinua, arraza edo enda esateko... Eta askoz gehiago...

E.- Eta zain = tendoi adieran oinarrituz, hain zuzen ere, osatu du euskal hiztunak *zaintiratu* hitza. Zer esan nahi izan du euskarak betidanik *zaintiratu* esanez?

J.A.- Ba, *zaina* eta *tiratu*, hortik ateratzen da. Zaina hartzen baldin badugu lehen esan dugun bezala tendoi moduan (tendoia da artikulazioa giltzadura batean juntatzen diren bi hezurak lotzen dituen kordio moduko hori), artikulazio horrek bihurtu bat edukitzen duenean, modu desegokian mugitzen denean, behar ez duen moduan mugitzen denean, halako ‘krakadura’ bat sortuko du eta horri esaten zaio zaintiratua. Berez ez da lokadura edo luxazio-ira iristen, hezurak ez dira lekuz kanpo mugitzen, baina hor sortzen den ondorio kaltegarriari esaten zaio zaintiratua.





11 BERRERITZEA vs GAIJOBERRITZEA

Esataria.- Gaixotasuna prozesu bat da, eta beste edozein prozesutan bezala, gaixotasunaren hasiera, bilakaera eta amaiera bereizten dira.

Jabier Agirre.- Hasierari dagokionez, beste batean ere aipatu genituen gaitzak izan zitezkeela kronikoak eta akutuak. Akutuak dira derrepente, bat-batean hasi, derrepente, oso azkar sintoma guztiak erakutsi, eta nahiko azkar sendatzen direnak. Kronikoak, ordea, dira hasiera motelagoa dutenak, denbora luzeagoan mantentzen direnak, eta esan genuen kronikoak zirela eta besteak akutuak. Horiek dira pixka bat hasierari begira egiten diren bereizketak.

E.- Eta jarraian bilakaera edo eboluzioa dator.

J.A.- Bai, eboluzioan, normala den bezala, gaitz batzuk derrepente agertzen dira, inolako inkubaziorik gabe, eta inkubazioa da pixka bat egoera sorrean, erdi lo bezala mantentzen dena. Gero datoz hasierako sintomak; bereizten dira batzuetan inportanteak direlako, medikuari diagnostikorako susmoa ematen diotelako. Gero dator erabateko gaixotasun-aldia, eta gero gain-behera dator, nolabait, gaixoa sendatzera doa poliki-poliki eta sintomak desagertzen direnean errekupeazioan edo susperraldian sartzen da. Horiek dira pixka bat eboluzioaren faserik nabarmenenak.

E.- Dena den, gaixotasunak okerrera egin dezake prozesuaren edozein fasetan.

J.A.- Bai, eta faserik okerreanean heriotza ere ager daiteke, baina prozesuaren okerragotzean bi fase edo bi egoera bereizi behar dira: batetik gaixotasuna erabat sendatu eta handik denbora puska batera, luzea edo motza, gaixotasuna berriro agertzen denean, hau da, gaixotasuna erabat sendatu da eta berriro agertzen denean, horri esaten zaio **berreritzea**, berriro eritu, berriro gaixotu egin dela. Baina bada beste egoera bat oso inportantea medikuentzat eta da gaixotasuna ez da oraindik erabat sendatu, medikuak uste du baietz, baina ez da erabat sendatu, eta sintomak desagertuta dauden arren, oraindik sendatu gabeko fase horretan gaitza berriro agertzen denean, horri **gaixoberritzea** esaten zaio. Diferentea da, lehenengo kasuan gaitza erabat sendatu zelako eta bigarren honetan oraindik sendatu gabe berriro agertu delako.



12 BERTIGOA EZ DA ZORABIOA

Esataria.- Zorabioak eta bertigoak nahastu egiten

ditugu gauza bera balira bezala, edo, hobeto esanda, sakonean oso diferenteak diren bi egoera horiek adierazteko termino bera, zorabioa, kasu honetan, erabiltzen dugu.

Jabier Agirre.- Bai, zorabioa eta bertigoa nahastea bekatu mortala da, nik uste, gaur egun. **Zorabioa** sentsazio orokor bat da, goragaleekin, gorakoekin, ahoko lehortasunarekin eta bertigoekin agertzen dena. Hortik askotan nahasmendua. Nola agertzen da? Ba, askotan itsasontzi batean goazela, baita autoan goazela ere edo gurdi batean, edo baita zaldiko-maldiko batean. Pertsona askok daukate zorabiorako erraztasuna eta mugimenduan dagoen edozer gauzatan, edozein tresnatan jartzen direnean, edo baita igogailu batean gerta liteke, pertsona horiek ondoez orokor hori sentitzen dute, eta sentsazioa oso molestoa da, oso deserosoa, denbora luze samarrean iraun dezakeena. Hor badaude joera indibiduala eta familiarrak ere. Familia askotan gertatzen dira zorabioak errazago. Edo eliza batean jende asko dagoelako eta horrelakoak. Eta hor hasi eta hor bukatzen da zorabioa. Denbora gehiago edo gutxiago iraun dezake zorabioak eta gero sentsazio oso txarra uzten du, baina hori da zorabioa.

E.- Eta bertigoa?

J.A.- Bertigoa oso gauza diferentea da. Bertigoak... Ikusi dugu zorabioan ere bertigoak agertzen direla, baina bertigoa da gehienbat oreka sentsazioaren galera, zu zutik zaude eta badakizu zutik egoten, eta gaur egun uste da belarriko sistema txiki batzuen kaltearen ondorioz galdu egiten duzula zutik egoteko joera hori, inguruko guztia mugitzen hasten zaizu alde batera eta bestera, nahiz eta zu zutik egon, uste duzu ingurukoa mugitzen dela, eta orduan zuk horren kontra joera egiteko erori egiten zara alde batera edo bestera. Gertatzen dena da sintomak antzekoak direla, hor ere gorakoak egon daitezke, goragaleak egon daitezke, baina ikusi dugu jatorria diferentea dela, batak ez dauka zerikusirik mugimenduari, besteak bai, bertigoak gehiago dauka altuerarekin edo belarriko trastorno horiekin, eta nahiz eta sintomak antzekoak izan egoerak oso diferenteak dira.

E.- Beraz, zorabioa eta bertigoa kontzeptu arras diferenteak direla esan behar dugu.

J.A.- Bai, eta nik uste euskaraz bata bestearekin nahastea eta biak *zorabio* deitzea, lehen esan dudan bezala, bekatua dela, zeren ez digu inolako mesederik eta bai kalterik egiten.





13 ZUHURRAGINA

Esataria.- Gaurkoan hortz-haginetako kontuak aipatu-ko ditugu. Izan ere, ezin uka dentistarengana joatea ohitura osasungarria denik, baina poltsikoarentzako ere ez dakit horren mesedegarria den...

Jabier Agirre.- Bai, bai. Zuk esandako horretatik hitz bat hartu nahi dut: **“hortz-haginak”** esan duzu. Euskaraz **“hortz-haginak”** hitzean biltzen dira bate-tik hortzak eta bestetik haginak. Nik uste esamolde oso polita dela. Askotan ez dugu jakiten nola deitu, hortzen barruan haginak ere badaudelako, eta **hortzeria** ere badago, baina hortz-haginak oso esamolde polita eta jatorra da. Axularrek ere erabiltzen omen zuen. Bai, jatorra eta polita da.

E.- Eta hortz-hagin guztiak berdinak dira?

J.A.- Ez, ez dira berdinak, ez. Erditik albo batera joanez, dauzkagu erdi-erdian **ebakortzak**, ebakitzeko diren hortz edo paleta handi batzuk. Gero dauzkagu **letaginak**, puntazorrotzak direnak, batez ere janariak-eta txikitzeko, animaliek izaten dituztenen antzekoak, askoz ere motxagoak, noski, eta gero datoz **haginak**. Haginak izan litezke aurrekoak, aurreko haginak edo premolarrak esaten dena, eta gero atzeko haginak; atzeko haginak izan litezke bi edo hiru, eta horiek duten funtzio inportanteena da janaria txikitu, ondo murtxikatzen edo maste-katzen lagundu, eta abar.

E.- Beno, bi edo hiru izan litezkeela aipatu duzu. Zergatik bi edo hiru?

J.A.- Beno, hortzak, dakizun bezala... lehendabizi esne hortzak daude, eta gero, horiek erortzen doazen neurrian betiko hortzak edo hortzeria definitiboa ateratzen da. Eta haginaren kasuan, hirugarren hagina edo euskaraz **zuhurragina** esaten zaiona... Eta zergatik zuhurragina? Ba, seguru aski pentsatuz umetan tontakeria asko egiten ditugula, umekeri kontuak eta abar, eta ez dakit, 20 urteren buelta horretan-edo nolabaiteko zentzumena etortzen zaigula burura, eta euskarak hor asmatu du zuhurragina... Eta ez da euskararen kontua bakarrik, espainolez esaten zaio **“muela del juicio”**. Orduan **“juicio”** ere pixka bat zentzumena, edo... Askotan zuhurragina agertzeak ez du esan nahi derrigor pertsona hori zentzuduna edo zuhurra denik, baina beno, euskarak horri zuhurragina esan dio.

E.- Eta amaitu aurretik, hortz-haginaren inguruan beste konturik aipatu nahi al duzu?

J.A.- Bai, bai, badaukat nik aspaldian arantza txiki bat **“dentista”** hitzarekin. **“Dentista”** hitza nik uste

du euskaraz onartu behar genukeela beste hizkuntza guztiak onartu duten bezala. Hau da, ez dago problemarik baten batek esan nahi baldin badu, baina zertara dator euskaraz, adibidez, **“haginlaria”**, edo **“hortz-artatzailea”** edo horrelakoak erabiltzea? Espainolez ere badaude **“sacamueltas”** eta horrelakoak, baina jendeak normalean **“dentista”** erabiltzen du. Beraz, nik uste dut euskaraz ere **“dentista”** erabili beharko genukeela inolako problemarik gabe.



14 HEZURREN IZENAK EUSKARAZ

Esataria.- Gaur lehiaketa txiki moduko bat antolatuko dugu entzuleentzat. Egia esan, ez dugu partitzeko halako sari handiegirik, baina tira, entzuleen euskar-maila behintzat neurtuko dugu. Hasteko eta behin, lehendabiziko galdera: zenbat hezur ditu giza gorputzak?

Jabier Agirre.- Beno, beno, hori tranpa txiki bat da, e? Hezurak bakarrik? Ala hezurak eta hortz-haginak? Beno, hezurak bakarrik hartzen baldin baditugu, galderak erantzun erraza dauka: 206 hezur.

E.- Beno, ba, konplikatu egingo dugu galdera hori: zenbat hezur-izen dakizkigu?

J.A.- Beno, ba, ez dakit, bakoitzak ikusiko du, baina euskarak honetan bentaja ematen du, hezurren izenak normalean egiten dira gorputzeko zein ataletan dauden, atal horren izena gehi hezurra. Adibidez, izterreko hezurra izango da izterrezurra, edo beso-ko hezurra izango da besahezurra, edo buruko hezurra izango da burezurra, edo bizkarreko hezurra izango da bizkarrezurra, nahikoa erraza.

E.- Eta bizkarrezurrean zenbat atal ditugu?

J.A.- Ba, bizkarrezurrean daude hogeita hamahiru orno edo bertebra, goitik behera adreiluak balira bezala bata bestearen ondoan jarrita. Goikoak, lepokoak dira zazpi, **lepaornoak** edo **zerbikalak**; gero datoz beste hamabi **bizkar-orno** edo **orno toraziko**, saihets-hezurren laguntzarekin; gero datoz bost **gerri-orno** edo **lunbar**. Eta gero datoz **errain-hezurra** edo **sakroa**, eta **uzkornoa** edo **kokzixa**. Horiek garai batean orno diferenteak ziren, baina gaur egun bat egin da edo fusionatuta daude.

E.- Eta gure lehiaketa moduko hau amaitze aldera, buru-hezurrean zenbat hezur daude?

J.A.- Burezurrean, lehenengo gauza, bereizi behar dira aurreko aldea edo aurpegia, hor daude hezurak

zentzumenen organoak babesteko, horiek dira sudur-hezurra, bomerra, masailezurra eta baraila, eta abar, eta gero, atzeko partea, krania edo benetan **garezurra** esaten dena. Eta hor daude bi parietalak, bi tenporal edo loki-hezurrak, eta gero kopeta-hezurra, garondo-hezurra edo okzipitala, etmoide hezurra eta esfenoide hezurra. Konplikatu samarrak, baina horiek dira euskaraz hezurren izenak.

E.- Saririk ez, baina hezur-izenak ikasteko modua izango dute gaurkoan entzuleek.



15 ODOL-ISURIAK

Esataria.- Fidel Castroren gaixoaldiaren inguruko berriak jaso genituenean, odol-isuriak izan zituela entzun genuen. Baina zuek, medikuek, beste hitz bat erabiltzen duzue, ezta, “odoljariora” hitza erabiltzen duzue?

Jabier Agirre.- Bai, niri ere harrigarria egin zitzaidan *Berria* egunkarian irakurri nuenean zuk esan duzun pertsonaia horrek odol-isuriak izan zituela. Nik uste dut euskaraz bereizi beharko genituzkeela batetik “jario” hitza, aditza, eta horren inguruan sortzen direnak, eta bestetik “isuri”, diferenteak direlako kontzeptu aldetik eta esanahiaren aldetik.

E.- Beno, ba, denborarik galdu gabe has gaitezen poliki-poliki “jario” edo “jariatu” hitzarekin, adibidez.

J.A.- Bai, nik uste dut hori dela kontzepturik inportantea. Hitzegietara jotzen baldin badugu, nonbaite tik isurkari bat edo likido bat irtetea, adibidez ura iturbegitik edo odola zauritik edo malkoak begietatik. Beraz, hor badago zentzu aktibo bat. Edo emakumearen bularretik esnea... Orduan, zentzu aktibo horrek ematen digu aukera mukiak jariatu egiten dituela sudurrak, edo esan dugun bezala, odola jariatu egiten dela..., eta hortik ateratzen dira **odoljariorak**, ez odol-isuriak.

E.- Eta orduan zer gertatzen da “isuri” hitzarekin? Zer litzateke kasu horretan odol-isuria?

J.A.- Ba, odol-isuria gero ikusiko dugu zer den, baina “isuri” aditzak daukana da askoz ere zentzu pasiboagoa, likidoz beteta dagoen zerbait irauli egiten denean, hortik erortzen dena edo, baina ez da jariatu bezain aktiboa. Eta guretzako, medikuontzako inportantea da “isuri” hitza “derrame” esaten dena aipatzeko. Orduan, **odol-isuria**, izatekotan, izango litzateke birikan, pleuran, sortzen den odol-

pilaketa txiki bat. Hori izango litzateke odol-isuria, baina odoljariora eta odol-isuria bi gauza nahiko diferenteak dira.



16 URDAIL-HESTEAK

Esataria.- Sarritan entzun ditut zuen hizkera berezi samar horretan erabiltzen dituzuen, adibidez, “urdail-hesteetako odoljariora”, edo “bihotz-biriketako berpiztea”. Aitortuko dizut niri bitxi samarrak iruditzen zaizkidala hitz hauek.

Jabier Agirre.- Bai? Baliteke... Gai teknikoetan euskarak ematen dizkigun baliabideak erabiltzen saiatzen gara, eta zuk esan duzun adibide-pare hori euskaraz oso normalak diren zeru-lurrak, edo anai-arreba, edo aiton-amonak, edo horrelakoak dira. Bikote batzuk dira, eta orduan euskaraz ere baliteke bihotz-biriketako horrelakoak arraro xamarrak egitea, baina, bueno, euskaraz nik uste baliabide nahiko jatorra dela.

E.- Agian zeru-lurrak eta horrelakoak entzutera ohi-tuagoak gaude baina aitortuko didazu behin arlo teknikoagora pasatakoan arraragoak egiten direla.

J.A.- Bai, agian alderantzizko ikuspegia da nirea, ohitu egin naizela eta nahiko normalak egiten zaizkidala, baina hor betiko zalantza dago, hau da, maileguetara jo, beste hizkuntzek egiten dituzten teknizismo arrotz samarrak, zeren, bueno, esan ditugunak **bihotz-biriketakoa**, horren kontrakoa izango litzateke kardiopulmonarra, edo **urdail-hesteetakoa**, horren kontrakoa litzateke gastrointestinala. Baina nik esaten baldin badizut kostozerbikala edo esaten baldin badizut maxilofaziala, agian horiek baino errazago ulertuko litzateke lepo-saihetsezurretako mina daukala pertsona batek edo masail-aurpegietako kirurgia egin dionela. Orduan, kontua pixka bat oreka bilatzea izango litzateke.

E.- Eta horrelako egiturak kasu guztietan egin litezke, ala badago arauen bat horrelakoak behar bezala osatzeko edo antolatzeko?

J.A.- Beno, euskarak hor ematen du izena izenarekin, anai-arrebak, edo zeru-lurrak, ematen du aditza aditzarekin, hartu-eman, joan-etorri, sartu-irten, eta baita adjektiboa adjektiboarekin, ba, futboleko nahiko arruntak diren txuri-gorriak eta txuri-urdinak, ezta? Eta baldintza bakarra da bigarrena pluralean egitea, ezin liteke esan urdail-heste, bai-

zik eta urdail-hesteak, edo ezin liteke esan bihotz-birika, baizik eta bihotz-birikak edo bihotz-birike-tako berpiztea. Hori da baldintza bakarra.

.....

17 SAGARRA EZ DA JATEKO BAKARRIK

Esataria.- Sagar hitza entzun eta denoi burura gauza bertsua etorriko zaigu, sagarrondoaren fruitua, mami gozokoa, beno, bakarren bati gazi samarra ere irudituko zaio, baina zuen jerga horretan badira sagar hitza osagai bezala hartuz eraturako beste hainbat esamolde ere, baina hauek ez dute jateko balio.

Jabier Agirre.- Bai, zintzur-sagarra, bular-sagarra, zangosagarra, eta beste batzuk ere badira, bai.

E.- Bueno, eta nonbaitetik hastearren, zer da zangosagarra?

J.A.- Ba, **zangosagarra** da belauaren eta orkatilaren artean, atzeko partean dagoen haragi edo mamizko bolatxo hau, espainolez pantorrilla, euskaraz badu beste izen bat, aztala, baina pantorrilla esan ordez zangosagarra esatea ere ez dago gaizki.

E.- Eta zintzur-sagarra?

J.A.- Bueno, **zintzur-sagarra** da hemen, eztarrian, kanpoaldera irteten den irtenune moduko bat, gizonezkoetan emakumeetan baino nabarmenagoa edo markatuagoa dena. Ez da euskararen kontua bakarrik, espainolez “nuez de Adán” esaten zaio, intxaurrari egiten dio erreferentzia, baina frantsesak eta ingelesak, euskarak bezala, sagarrari egiten diote, nik gaizki esango nuke, baina haiek ere sagarrari egiten diote erreferentzia, haiek Adanen sagarra esaten dute, guk zintzur-sagarra esaten dugu.

E.- Eta bukatzeko, bular-sagarra eta zergatik erabiltzen den sagarraren erreferentzia hau.

J.A.- Bular-sagarra agian ez da hain ezaguna. Bular-sagarra da pixka bat nik uste dut... zergatik erabiltzen duen euskarak? Ba, euskarak sagarra gauza borobil bezala ulertu ote duen da nire interpretazioa, eta orduan bai zangoaren atzealdean, bai eztarrian eta bai hemen, bularraren goiko partean, kanpo aldera ateratzen den zerbait borobil samarreko horri sagarra esaten dio, hortik atera dira zango-sagarra hankan, zintzur-sagarra eztarrian, edo bular-sagarra emakumeen guruina edo bularra esateko.

.....



18 ADN ala DNA ESAN BEHAR DA EUSKARAZ?

Esataria.- Genetika hain nabarmen dagoen garaiotan, giza genoma delakoa edo beste edozein albistetan zalantza bat sortzen zaigu askotan kazetariok: nola esan behar da euskaraz, ADN ala DNA?

Jabier Agirre.- Zalantza ez da zuena bakarrik, zalantza jende askorena da. Izan ere, hiztegiatarra jotzen baldin baduzu, eta bati edo besteari aditu, batek modu batera esango du eta besteak beste modura, eta nola ez dagoen momentu honetan kontsensusa edo adostasuna erabatekoa egingo duen erakunderik-edo, eta Euskaltzaindia gauza hauetara ailegatzeko urte asko falta direnez, nik uste dut hobe dela pixka bat pentsatzea eta esatea: zergatik ADN edo zergatik DNA? Nola esaten da horren izendapen osoa? Euskaraz da **azido desoxirribonukleikoa**, zeren kontrakoa, desoxirribonukleiko azidoa ez da zuzena euskaraz, okerra da, beraz, azido desoxirribonukleikoa baldin bada, euskaraz horren laburdura **ADN** da, ordena horretan.

E.- Aukeratzea konplexua da, beraz. Eta ezin da zirt edo zart egin, bata edo bestea aukeratu?

J.A.- Egin daiteke zirt edo zart, baina nik uste dut zirt edo zart egitea baino hobe dela pixka bat pentsatzea: zergatik? Nik ez dizut esango DNAk eta hizkuntzak... adibidez, frantsesak eta espainolak ere ADN egin behar lukete, eta ikusten duzu askotan DNA egiten dutela, baina hori da ingelesak duen pisuagatik. Ingelesak bere sintaxiaren arabera DNA egiten du eta beraz etortzen zaizkigun erreferentzia asko ingelesez nola datozkigun, han ere DNA egiteko joera daukagu euskaraz. Baina berez, esaten dizut ADN behar-ko lukeela.

E.- Orduan gauza bera gertatuko da ARNaren kasuan? Euskaraz ARN egin beharko litzateke eta ez RNA?

J.A.- Bai, bestea azido desoxirribonukleikoa zen bezala, hau **azido erribonukleikoa** da, eta, beraz, **ARN** tokatzen da, onartzen baldin bada lehengo arrazonomendua. Eta horren laburdura guztiak, ARN mezularia (ARNm), transferentziakoa (ARNt) eta abar, ARN, ez RNA.

E.- Oso zaila da adostasun batera iristea?

J.A.- Ez, zaila ez da, baina, badakizu, batek egiten du modu batera eta gero besteak jarraitu edo ez jarraitu... Beste adibide bat jarriko dizut: gaur egun HIESa denok ezagutzen dugu, denok onartzen dugu, baina orain hogeitau urte edo izango dira

ETBtik deitu gintuztela lau edo bost lagun mahai-inguru batera joateko. Eta orduantxe bataioa eman behar izan genion ingelesez besterik ez zetorkigun gauza bati, espainolak egiten zuen modu batera, SIDA, frantsesak egiten duen bezala, eta euskarak ordea ez zuen zertan SIDA egin behar, orduan asmatu genuen **Hartutako Immunoeskasiaren Sindromea, HIES**. Gaur egun jende guztiak onartzen du. Horrek suertea izan zuen, beste batzuek, ARNk edo ADNk, suertea bera izango duten ikusi egin behar.



19 IZENDAPEN UGARI DITUEN GAITZA: ELGORRIA

Esataria.- Beti esan izan da, bitxikeria bezala, izen ugari dituela euskarak tximeleta intsektua izendatzeko. Ez ditugu denak aipatuko, baina adibide batzuk jar-tzearren, inguma, marisorgin, mitxeleta, pinpirin, sorgin-oilo, mitxirrika,.... pentsa ezazue, guztira 200 adiera baino gehiago jasotzen omen ditu Plazido Mujikak bere hiztegia. Bada gaurko gaixotasunekin ere halako lotura bat, ezta, antzeko zer-bait gertatzen da gaurko gaixotasunarekin.

Jabier Agirre.- Bai, gaur aipatu nahi dugun gaixotasunari, euskaraz, izen normalizatu bezala, Euskaltzaindiak **elgorri** esan dio, eta entzuleak hobeto identifikatzeko espainolez *sarampión* da. Orduan, hiztegiatara jotzen baldin baduzu, edo jendeak etxean daukan erreferentzia hartzen baldin baduzu, euskaraz badaude izen "normalizatu gabek" asko. Orduan, zer egin behar da? Ba, bat proposatzekotan, guk elgorri proposatzen dugu.

E.- Guk adibide gehiago ezagutu nahi ditugu, ea batzuk ezagutzen ditugun behintzat.

J.A.- Bai, seguru baietz. Adibidez, Iparraldean, nonbait, ni ez naiz Iparraldekoa, gorriarea edo gorrina esaten zaio, txarranpina esaten zaio Gipuzkoan batez ere, edo txurrunperi, hiztegiatan bildu dut, Erronkari aldean, nonbait garai hartan euskaraz egiten zutenean, edo xurrunpe, edo zurrunpiñoa. Eta gero, oraingo hauek pixka bat aparte utzi nahi ditut, naparmina edo nafarrerri gorria ere esaten omen zaio. Horiek dira batzuk, gero horien barianteak edo aldaketa txikiekin asko, baina denak dira....

E.- Eta hori zergatik gertatzen ote da? Zergatik hainbeste aldaera?

J.A.- Azaleko gaixotasunetan hori nahiko gauza arrun-

ta da. Pentsa ezazu orain, gaur egun, medikuntzak asko aurreratu du eta badagoela joera bat gaixotasun bati izen bat eta bakarra emateko, denok elkar hobeto ulertzeko. Baina pentsa orain 50 edo 100, edo 150 urte, medikuak oso baliabide gutxi zeuzkan, eta baliabide horien artean zen ikusten zuena. Zer ikusten zuen? Ba, azalean pinporta gorri batzuk ateratzen zitzaizkiola pertsonari, normalean umeari. Orduan, hizkuntza bakoitzak egin du bere bidea eta euskarak gorriaren inguruan egin ditu lehen aipatu ditugun horiek guztiak: gorria, elgorria, gorrina, gorriarea eta abar.

E.- Eta lehen aipatu dituzun naparmin edo nafarrerri gorria bezalakoak? Horiekin zer gertatzen da?

J.A.- Bai, horiekin... bueno, badaukat beste egun batean ere horretaz hitz egiteko gogo, baina niri iruditzen zait pixka bat ofentsiboak edo izan litezkeela nafarrentzako. Nafarrerria edo nafarmina edo naparmina, hori beraiek esango dute, ikusiko dugu, baina gogor samarrak iruditzen zaizkit gaixotasun bati lotzeko.



20 ZER OTE DA NAFARRERIA?

Esataria.- Aurreko batean **nafarrerri** hitzari buruz ari-tuko zinela agindu zenigun.

Jabier Agirre.- Bai, bai. Esan nahi dudana nahi nuke esan inor mindu gabe edo jendeak ez gaizki ulertzeko moduan. Begira, nafarrerri hitza hiztegiatan badago, oso hitz jatorra da nonbait euskaraz, eta jendeak identifikatu egin du beti gaitz jakin batekin. Baina kontuan hartu behar da nafarrerri hitza oso gaitz agian nazkagarri samar batekin, biruelarekin, lotua dagoela. Orduan, biruela gaur egun zorionez desagertuta dago, txertaketaren ondorioz ez dago biruelarik edo baztangarik edo nafarreririk orain dela ia 30 urte baino gehiago, baina kontua da nafarrerri hitza, duen karga negatibo guztiarekin, nazka moduko osagai horrekin, nafar hitzarekin lotzea, niri fuerte samarra iruditzen zait.

E.- Zergatik? Argitu iezaguzu hori pittin bat gehiago.

J.A.- Pentsa ezazu, gu ez gara nafarrak, baina euskarak seguru aski pentsatu zuen, uste dut nik, e, gaitz hori Nafarroatik zetorrela, eta hor dago pixka bat erdialdean egindako burutapen bat da, e? Nafarroatik bai pertsonak, edo bai animaliek- edo ekarri zutela, eta horrela sortu dira nafarrerri hitza eta astanafarrerri hitza. Eta nik uste dut

badela garaia jada pixka bat gauza horiek ahal bada behintzat beste modu batera izendatzeko.

E.- Beraz, zer esan nahi du honek, ez ditugulanafarrerri edo astanafarrerri hitzak ez direla erabili behar, utzi egin behar ditugula?

J.A.- Ba, nik nahiago nuke, badauzkagu beste hitz batzuk, hau da, nafarrerri hitza esateko, *biruela* esateko, euskaraz **baztanga** badago, eta astanafarrerri hitzaren ordain nahiko korrientea da **barizela**. Orduan, zertarako jarraitu nafarrerri edo astanafarrerri esaten euskaraz beste bi horiek ere baldin badauzkagu?

.....



21 SOIN ETA SOINKETA

Esataria.- Azkenaldi honetan “soin” hitzak ere harrotu ditu bazterrak, nik dakidala. Zer dela-eta eztabaida edo saltsa hori?

Jabier Agirre.- Bai, niretzat ere pixka bat harrigarria izan zen, betidanik uste izan nuen *soin* eta *gorputz* sinonimoak zirela, eta hiztegieta ere horrela bildu izan da, baina Euskaltzaindiak orain esan du “soin” ez dela “gorputz”en sinonimoa, gorputzaren goiko partea, gerritik gorakoa, eta, batez ere, sorbalda dela. Orduan, hor geratzen dira hainbat hitz hiztegieta-eta bildu izan direnak eta ikastoletan adibidez hain arrunta den **soinketa** eta abar, nik uste dut nahiko airean bezala geratzen direnak.

E.- Eta non dago horien bekatua?

J.A.- Ba, nonbait bekatua da, esan dudana bezala, garai batean sinonimo bezala jo zirela, baina momentu honetan Euskaltzaindiak esan baldin badu “soin” ez dela “gorputz”en sinonimoa, goiko parte bakarririk, hor gelditzen da,.... soinketa dela, esan dugun bezala, Gasteizko erakunde bat badago gazteei gorputz hezkuntza erakusten diena, espainolez IVEF, Instituto Vasco de Educación Física, eta euskaraz Soin Hezkuntzaren Euskal Erakundea deitu dena. Orduan zer egin behar du erakunde honek, bere izena aldatu? Hor Euskaltzaindiari galdetu beharko lioke Soin Hezkuntzaren Euskal Erakundeak hitz horiek ondo dauden ala ez.

E.- Eta zer gertatzen da soin hitzak dituen beste erabilera eta adierekin? Adibidez, soinean eramaten direnak, dela arropa, dela dirua, dela dokumentuak...

J.A.- Bai, bai, horiek nik oso jatortzat jotzen ditut, nik

uste dut ondo daudela, ez direla baztertzeko modukoak, baina nik uste dut hor ere normalean... Zu gogoratzen zara, ez, umetan Kristau lkasbidea erakutsi zigitenean artzainak nola galdutako ardia hartu eta soin gainean, baina soin gainean... bizkar gainean eramaten zuen. Eta Jesukristo nonbait gurutzera zihoala, han gurutzea soin gainean, baina soina zen sorbaldaren gainean. Nik uste dut hor egin dela pixka bat soinaren adiera benetan zuzena hartu eta zabaldu egin dela, eta orduan jendeak identifikatu du “soin” gorputz osoarekin, baina nik uste ez dela gorputz osoa.

E.- Bueno, eta aurreko batean *Giza Soina* liburua aipatu zenigun. Zer gertatzen da horrekin?

J.A.- Hori aspaldiko liburua da, 1970ekoa, eta badago beste bat ere zaharragoa, 1904koa edo 1905ekoa. Horiek ezin ditugu aldatu, baina gutxienez jendeak jakin dezala garai batean hain arruntak ziren **soinatalak** eta **soin-adarrak** eta horiek, agian “gorputz-adar” hitzarekin ordeztu beharko genituzkeela, besterik ez.

.....



22 ANBULANTZIA MEDIKALIZATUA

Esataria.- Halakoren bat entzuten dugunean normalean larrialdia adierazten du nolabait, eta pentsa genezake ambulanzia bat dabilela zitzu bizian, eta horrek normalean ez dakar gauza onik. Ambulanzia esan dut baina bada beste hitz bat ere: eriautoa. Zer iruditzen zaizu?

Jabier Agirre.- Zer uste duzu? Nik **ambulanzia** egin-go nuke, niri gustatu ambulanzia gustatzen zait. Betiko kontua da, beste hizkuntzetan ez dago inolako problemarik ambulanzia bezalako hitz bat erabiltzeko. Euskaltzaindiak ere sartu du bere Hiztegi Batuan eta hor sartzen dira benetan erabiltzeko modukoak diren hitzak eta abar. Orduan, eriautoaren kontra eduki, eduki... ez daukat ezer, baina asmatua da, jendeak ez du erabiltzen... Beraz, nik uste dut ambulanzia erabiltzea askoz ere normalagoa eta askoz ere mesedegarriagoa dela euskaraz.

E.- Beraz, ambulanzia. Baina zer gertatzen da gazte-erazko *Ambulancia medicalizada*, kontzeptu hori nola esan euskaraz?

J.A.- Bueno, kontzeptu bat emateko beti pentsatu behar da aurretik zer esan nahi duen, eta zer esan nahi *ambulancia medicalizada* horrek? Hor bi kon-

tzeptu, bi matiz sartzen dira: batetik, bertan langile espezializatuak daudela, medikua edo erizaina normalean, medikua eta erizaina, hobeto esateko, eta gero tresna bereziak ere daramatzatela larrialdia gertatzen den lekuan bertan jendeari atentzioa emateko: egoten da desfibriladore bat, egoten da arnasgailu bat, egoten da tresneria nahiko sofistikatua. Beraz, anbulantzia medikalizatuak darama batetik jendea eta bestetik tresneria espezializatuak. Eta nik uste horiek izendatzeko **anbulantzia medikalizatuak** baino hoberik ez dagoela.

E.- Beraz, horrekin geratuko gara, anbulantzia medikalizatuak esango zenukeela?

J.A.- Bai, beste aukera batzuk ere eduki ditugu esku artean, adibidez garai batean DYAK eta Gurutze Gorriak erabiltzen omen zituzten anbulantzia medikuduna edo ibilgailu sendagileduna. Gaizki, gaizki ez daude, baina beste hizkuntzak horrela egiten baldin badute, medikalizatuak, eta adibidez, *Administrazio Sanitarioko Oinarrizko Hiztegia* ere horrela utzi baldin bazen, eta hori beti esaten dugun kontsentsuko lan bat izan zen, Osakidetzako, Osasun Saileko eta UZEIko teknikariek batera egin genuena, ez naiz ni izango horren kontra egingo duena.

.....



23 ZER ADIERAZTEN DUTE TENTSIO-ZIFREK?

Esataria.- Gaurkoan tentsioaren inguruko kontu batzuk aipatuko ditugu, denok hitzetik hortzera erabiltzen ditugunak, baina askotan ez dakigu oso ondo zer diren.

Jabier Agirre.- Bai, nik ere inpresio hori daukat, jendeak hipertentsioa, tentsio altua, baxua... horiek denak oso normal erabiltzen ditu, baina nik ere askotan uste dut ez dakiela oso ondo zertaz ari den.

E.- Has gaitzen, ba, kontua azaltzen. Tentsioa edo presioa?, horrela ere entzun izan dugu-eta. Zer esan nahi digu horrek?

J.A.- Bueno, bihotza muskulua da, bihotza uzurtu eta zabaldu egiten da, eta horietako uzurdura bakoitzean indar bat egiten du odola kanpoaldera botatzeko. Pentsa zer indar egin behar duen odolak, hasi bihotzetik eta hatz-puntetaraino ailegatzen baldin bada. Orduan, bide horretan, zirkulazio-bide horretan bilatzen duen edo aur-

kitzen duen indarra, kontra egin behar dion indarra, horixe da arteria-presioa edo tentsio arteriala.

E.- Hori da presioa, baina bi neurri aipatzen dizkigute mediku eta erizainek: altua eta baxua.

J.A.- Bai, esan dugu bihotza muskulua dela, baina da bi denborako motor bat bezala, dauzka bi mugimendu, bata da uzurdura esaten duguna, kontrakzioa, horri **sistolea** esaten zaio, eta momentu horretan dagoen presioa da zifra altua, eta gero, muskulua lasaitzen denean, erlaxatzen denean, beste mugimendu horrek **diastolea** izena du, eta bigarren mugimendu horri dagokion tentsioa diastolikoa da, tentsio baxua. Beraz, daude tentsio altua, sistolikoa, kontrakzioari dagokiona, batetik, eta tentsio baxua edo diastolikoa, lasaitzeko momentu horri dagokiona, bestetik.

E.- Eta zeintzuk dira tentsio normalaren mugak?

J.A.- Ez dago esaterik, zeren adin bakoitzak dauka bere muga, baina esan dezagun pertsona heldua, hogeitertetik berrogeita hamar-hirurogei urte bitartean, horren tentsio normalak izan behar lukete: altua edo sistolikoak 13-14, eta 8 edo 9 arte tentsio baxuak, zifra baxuak edo diastolikoak. Horiek dira zifra normalak 20-60 urte bitartean. Hortik gora, adinak aurrera egiten duen neurrian, tentsio-zifrak ere igo egiten dira, eta, beraz, normala izan litekeena gu bezalako adina duen pertsona batentzako, 60, 70, 80 urtekoentzako pixka bat altuagoa ere, 14tik 16ra bitartean-edo, onartu daiteke. Horiek dira zifra normalak. Hortik gora izango litzateke **hipertentsioa**, altua, eta bada jendea tentsio baxuagoa daukana, eta horri **hipotentsioa** esaten zaio.

.....



24 MEDIKUAK ETA GAIKOAK ELKAR ULERTZEN AL DUTE?

Esataria.- Sarritan izan dugu hizpide medikuaren eta gaixoaren arteko harremana, eta bi solaskideen arteko komunikazioa zuzena eta egokia izateko baldintza batzuk aipatu izan ditugu. Hizkuntza argia ezinbesteko tresna dela ere esan izan dugu behin baino gehiagotan.

Jabier Agirre.- Bai, hizkuntzak argia izan behar du. Zuk eta nik elkar ulertuko baldin badugu, bion arteko maila hori hizkuntzak segurtatu behar du. Orduan, nik hipotesi bat baino gehiago jarriko ditut gaurkoan. Demagun bi mediku direla, ezta?,

biak ginekologoak dira, bi mediku, jarri dezagun, eta ari dira gaixo bati buruz hizketan. Biak bada-
kitenez zer duen andre horrek eta zer egin
behar dioten, batek esango du, adibidez, mediku
batek esango dio besteari **histerektomia
erradikala** egin behar diola andre bati, eta oso
ondo daki entzun duenak hori, medikua baldin
bada, zer egin behar dion. Orduan, maila horrek
balioko liguke bi medikuren arteko konbertsa-
zioa segurtatzeko.

E.- Baina entzuten ari dena emakumea bada, jakina,
ebakuntza egin behar dioten emakume horrek
kasu horretan ez luke ziurrenik zipitzik ere
ulertuko.

J.A.- Ez, noski. Bigarren kasua da. Hasierako mediku
horietako bat bere kontsultan dago eta emakumea
etorri zaio kontsultara, eta lehenago bere lagunari
histerektomia erradikala esan dion bezala, andreari
ezin dio hori esan. Orduan, esango dio, adibidez,
umetokia kendu egin beharko diola. Edo umeto-
kia fuerte samarra iruditzen bazaio, **matriza
kendu** behar diola esan beharko dio. Jada bigarren
maila batera jaitsi gara: lehen histerektomia erradi-
kala zena orain umetokia edo matriza kendu edo
erauzi... Eta horrela bai, emakumeak ondo ulertu-
ko dio medikuari zer egin nahi dion.

E.- Gainera, ez da hor bukatzen mailaz maila egiten ari
garen errebaso hau. Gure kasu hipotetikoa erabat
ixteko, pentsa dezagun emakumea kontsultatik
irten dela eta kalean bere lagun batekin topo egin
duela. Nola kontatuko dio lagunari zer egin behar
dioten?

J.A.- Bueno, lehen esan ditudan horiek, umetokia
kendu behar diotela edo matriza kendu behar dio-
tela, baliteke laguna bere mailako andrea baldin
badu, baliteke ulertzea, baina bada oraindik ere, eta
adibide berarekin segitzeko, bada oraindik beste
maila arruntago bat, adibidez **erabat hustu** egin
behar dutela esatea. Orduan, erabat hustu egin
behar dutela kontestutik aparte mila gauza izan
daitezke, baina kontestu jakin honetan emakumeak
lagunari adierazi nahi diona da umetokia edo
matriza kendu eta orduan “barrutik erabat hutsik”
geratuko dela.

.....



25 DIGERITU ETA DIGESTIO

Esataria.- Bada beti galdetu nahi izan dizudan puntu-
txo bat. Gaur egun **digestio** edo **digeritu** hitzak

erabiltzen dituzue. Baina garai batean, ez al zeni-
tuzten **liseriketa** eta halako hitzak erabiltzen?

Jabier Agirre.- Bai, arrazoi duzu, bai. Azken urteotako
aldaketa izan da. Garai batean jendeak beste modu
batzuetara ere esango zuen, baina guk, adibidez,
euskara teknikoan-edo aritzen ginenak, liseriketa
ikasi genuen, eta ez ikasi bakarrik, jende askori
esan genion hala behar zuela, eta orain aldatu egin
ditugu kontuak.

E.- Aldatu egin duzue, baina zergatik? Nondik dator
aldaketa hori?

J.A.- Bai, bueno, ez gara gu geure kasa ibiltzen, beti
Euskaltzaindia dago atzean, eta Hiztegi Batua eta
abar, beti aipatzen dugun bezala. Eta kasu honetan
ere horrela izan zen. Zer pasatu zen? Ba orain
hogei edo hogeita hamar urte hasi ginenean ez
zegoen Euskaltzaindia maila honetan, beste hiztegi
batzuk geneuzkan, eta hiztegi haiek proposatu ziz-
kiguten bi aukera: proposatu ziguten alde batetik
liseriketa edo liseritu, eta bestetik digeritu. Eta guk
garai hartan beste modu batera ikusten genuen
gauza, eta iruditu zitzaigun digeritu espainolaren
kalkoa zela..., eta euskaraz liseritu jatorragoa zela
edo..., eta orduan abiatu ginen liseriketa hitzetik.
Orain Euskaltzaindiak egin duen irakurketa justu
alderantzizkoa izan da: pentsatu du liseritu forma
euskaraz liseriketa ez dela zuzena, eta digeritu
hobe dela liseritu baino. Orduan liseriketa, liseritu
eta abar egiten genituen bezala gaur egiten ditugu
digeritu, digestio eta abar.

E.- Beraz, argi esan behar dugu gaur egun forma zuzena
digeritu dela.

J.A.- Bai, forma zuzena... bestea forma txartzat baino
gehiago ba... euskarak egin duen hiperkorrekzio
bat izango litzateke. Orduan, gaur egun esan behar
da *digestioa ondo egiten dudala*, edo *digestio etendu-
ra bat izan duela*, edo *gaizki digeritzen duzula* eta
abar. Horiek dira kontuak.

.....



26 BEGIA IZAN AL DAITEKE NAGIA?

Esataria.- Orain egun batzuk iloba bati eskolan **begi
alferra** duela esan omen diote. Posible ote da
hori?

Jabier Agirre.- Bai, bai, posible bai, eta gainera etxera
eskolatik etortzen diren txostenetan eta behin
baino gehiagotan agertzen da, eta orduan jendeak
jakin beharko luke zer den begi alferraren kontu
hori. Begi alferra da, nolabait, begiak ez duela

behar bezala ikasi, bere madurazio-prozesuan ez dela puntu bateraino iritsi, eta orduan pixka bat motel geratu dela, ikusmena ez dela erabat argia... eta pixka bat motel geratu dela. Eta larritasunak aparte, nik uste gaur diagnostiko nahiko arrunta dela.

E.- “Larritasunak aparte” aipatu duzu, baina horrek zer esan nahi du, larria izan liteke kasu batzuetan?

J.A.- Bueno, larria, larria... Larria baino gehiago da, ez bada garaiz harrapatzen, eta garaiz da 7-8 bat urte baino lehen, zeren ordurako begiak iritsi beharko du halako heldutasun edo madurazio-puntu batera, eta hori baino lehenago harrapatzen baldin bada, tratamendua nahiko erraza du, errehabilitazioa du, eta begia iristen da bere normaltasun erabatekora. 7 urtetik edo 8 urtetik, gutxi gorabeherako adina, baina 7-8 urtetik aurrerako diagnostikoa eta prebentzioa egiten baldin bada, tratamendua txarra izan gabe ere ez da lehen esan duguna bezain ona, eta orduan hobe da garaiz aurretik harrapatzea kontu hau. Eta horregatik egiten dira ikastolan adin horrekin azterketak, ahal baldin bada horrelako kontuak harrapatzeko.

E.- Eta modu erraza da hori identifikatzeko, **begi nagia** erabiltzea? Edo... hatz nagia ere erabili ohi dugu...

J.A.- Horixe. Nagia edo alferra da nolabait esateko egin behar duena baino gutxiago egiten duena. Zergatik esaten zaio laugarren behatzari hatz nagia edo alferra? Ba, ezertarako ez duelako balio; beste behatzekin konparatuz, justu-justu eraztuna eramateko besterik ez du balio. Eta horregatik, nik uste, begi nagia edo begi alferra modu ona dela esateko.

E.- Eta proposamen bat egitera goaz, ziurrenik ez du balioko. **Begi lausoak** ez luke balioko, beraz...

J.A.- Bueno, egia da nik ere ikusi izan ditudala horrelako nahasketak, baina nik uste begi-lausoak beste gauza bat dela: begi-lausoak edo katarata, kristalinoan sortzen den opazitate moduko bat da, eta beste gauza bat. Oso ondo dago, begi-lausoak, baina ez begi nagia esateko, baizik eta justu katarata esateko, diferenteak dira.

.....

tua besterik ez da, ala benetan sekula baino indartsuago dago sindrome hau?

Jabier Agirre.- Hori betiko kontua da. Garai batean gutxiago diagnostikatu zen. Zergatik? Ez zegoe-lako, zuk esan duzun bezala? Edo, nik uste hau dela bigarren arrazoia, gaur egun diagnostikatzeko moduak, tresnak-eta findu egin dira, eskolan edo baita familian ere arreta gehiago ematen zaio kasu honetan diagnostikoari, eta hori orduan ez da lehen baino kasu gehiago daudela. Lehen beste modu batera pasatzen zirenak, oharkabearen edo besterik gabe “*ume hori alferra da*” esaten ziren horiek gaur egun diagnostikoa dute.

E.- Noiz edo noiz irakurri izan dut arreta-faltaren edo gabeziaren eta hiperaktibitatearen sindromea.

J.A.- Bai, izena konplikatuagoa da, hiperaktibitatea esaten diogu hiperaktibitatea delako agian sintomarik nabarmenena, begietara gehien ikusten dena. Baina hor daude... sindrome bat, hau da, sintoma-multzo bat da, eta hiru sintoma daude. Batetik dago arreta falta, umeak ez du atentziorik jartzen, umea despistatua bezala dabil, ezin du zentratu gauza batean edo bestean, eta horrek, noski, eskolan etxeko lanak eta egiteko edo atentziorik jartzeko problemak sortzen dizkio. Bestetik dago inpulsibitatea edo agresibitatea... edo oldarkortasuna; agian, fuerte samarra da, eta hori gutxi ikusten da, umeak gaizki erantzuten du, modu zakarrean erantzuten du, edo portara agresiboak dauzka, eta abar. Gehiago, esaten dizut, ume txikitan. Eta ordea hirugarrena, hiperaktibitatea, gehien entzuna den sintoma da, ezin du geldirik egon ezertarako, hankak mugitzen ditu, ezin du eserita egon, altxa egiten da, joan egiten da, eta abar. Horiek dira hiru sintoma nagusiak.

E.- Sindromea dela esan dugu, baina zein da sindrome horren izendapena euskaraz?

J.A.- Bueno, ba, nolabait hiru sintoma horiek bilduko lituzkeena. OMEk, Osasunaren Munduko Erakundeak, egiten du aldi behin halako gaixotasunen sailkapen bat, eta azkenekoan horri **sindrome hiperzinetikoa** deitu zion: hiperzinetikoa, asko mugitzekoa. Nik uste dut hiru sintoma horiek biltzeko izenik egokiena litzatekeela arreta faltaren eta hiperaktibitatearen sindromea. Arreta falta esan dugu, hiperaktibitatea esan dugu, eta gero, sindromea. Beraz, **arreta faltaren eta hiperaktibitatearen sindromea**.

.....



27 HIPERAKTIBITATE-SINDROMEAK

Esataria.- Azken aldi honetan badirudi modan jarri dela hiperaktibitate-sindromea delakoa. Moda kon-



28 ZELARI eta ZELADORE

Esataria.- Osasungintza nahiko mundu hierarkizatua da. Medikuak daude batetik, eta, egia esan, medikuen artean ere maila ugari daude ospitale batean, adibidez. Erizainak ditugu, bestetik laguntzaileak... Eta bada beste talde bat, zelarien taldea, hain zuzen ere.

Jabier Agirre.- Bai. Hitz bitxi samarra, ezta? **Zelari.** Bueno hiztegi batzuetan agertu ere ez da egiten, eta beste batzuetan, ordea, aspaldi samar bildu zen, Azkuek eta bildu zuten, batez ere Bizkaia aldean, Gernikan, Bermeon, eta baita Gipuzkoan, baina bizkaiera aldera egiten duten Azpeitian, Bergaran edo horrelakoetan. Orduan, hitza *celador*, garai batean zer izango zen? Ba, garai batean zerbaiten zaintzaile bezala, edo eskola batean zaintzaile bezala egiten zuena, edo fabrika handi batean atea zaintzen egoten zena eta abar. Eta gero ospitale edo sanitate mundura pasatu denean, hor gelditu da zelarien hitz hori, profesio edo lanbide jakin bat izendatzeko.

E.- Eta gaur egungo kontzeptuari begiratuta, zer egiten dute zelariak?

J.A.- Zelariak uste baino gauza gehiago egiten dituzte edo daukate tipifikatuta legean egiteko. Maila apaleko lanak dira, baina gaixoak alde batetik bestera eramanean, zainketa-lanak, behaketa-lanak, obserbaziokoak, gaixoak garraiatu... Horiek denak daude ondo tipifikatuta Gizarte Segurantzako Legean eta horiek dira zelari batek egingo lituzkeen lanak.

E.- **Zelari eta zelatari** hitzak lehenengo entzunaldian antzekoak dira. Ez ote da nahasketarik egon bien artean?

J.A.- Seguruenik bai. Nik ez dakit hainbeste esaten, baina nik uste dut zelari eta zelatari sustrai beretik datozen hitzak direla. Zer gertatzen da? Bada, guretzako zelatan ibiltzen dena, zelatariak, halako karga negatiboa duela, ezta? Beti ezkutuan, edo gerra garaian besteak espioi lanak egiten eta abar. Eta zelaria da lanbide duin bat, lanbide normalizatu bat eta, noski, behar zuen izen normalizatu bat, inori belarrarian karga negatiboa ekarriko ez ziona. Zelatari esan geniezaiokeen, baina zelataria umetan-eta zen beti besteen atzetik ibiltzen zena. Gero, beste aukera bat ere bazegoen: **zeladorea**. Baina zeladorea espainolarekin, gaztelaniarekin, oso lotua dago. Beraz, nik uste dut zelari dela gaur egun forma neutro eta normalena lanbideari esateko.

[Oharra: **UZEI**ren azken erabakia **zeladore** hitza hobestea da.]



29 AGERPEN FARMAZEUTIKOAK

Esataria.- Gaurkoan botikak izango ditugu hizpide, edo, hobeto esanda, botikara goazenean bertan saltzen dizkiguten enbase edo forma berezi horiek.

Jabier Agirre.- Bai, horiei esaten zaie modu teknikoan **agerpen farmazeutikoak**, zeren substantzia batek efektua egingo baldin badu, noski, modu batera ematen digute farmazian, batzuetan likidoa izaten da, beste batzuetan izaten da injekzioa, beste batzuetan izaten dira pastillak, edo azalerako dauden forma diferenteak, kremak eta abar.

E.- Tira, bada, ikus ditzagun batzuk. Azalerako, adibidez, zer alde dago aipatu dituzun horien guztien artean?

J.A.- Hitzak asko dira: krema, pomada, ukendua... ez da hori euskararen kontua bakarrik, hau da, substantzia batek efektua egiteko eta azalean emateko derrigor gantza eduki behar du. Animalia baten koipea hartzen da oinarri bezala eta horri eransten zaizkio gero efektua egingo duten substantziak, dela antibiotikoak, dela kortikoideak eta abar. Eta segun eta zenbat grasa, zenbat koipe daukan, ez da beti gertatzen, baina botika bat izan daiteke krema, izan daiteke pomada edo izan daiteke ukendua. Beraz, **krema, pomada** eta **ukendu** hitzen artean, ez euskaraz, baizik eta kontzeptuen artean dagoen diferentzia bakarra da, edo nagusia behintzat, zer grasa edo zer koipe kantitate edo proportzio daukan horietako substantzia bakoitzak.

E.- Bueno, horiek jada botikan prest aurkituko ditugunak, baina badira beste batzuk azalean jartzen direnak, esate baterako sendabelarrekin-eta egiten direnak.

J.A.- Bai, bai, bai, horrelakoak ere badaude, eta horiei euskaraz ere hitza eman behar zaie. Orduan, forma gehiago ere badaude, baina nagusienak aipatzeko, daude batetik **kataplastak**, eta horiek izaten dira hotzak edo beroak, azalean jartzen direnak poliki-poliki barruan daramaten substantzia askatzen joan daitezen, eta gero bestetik daude **enplastuak**, eta enplastuak izaten dira gehiago masa solidoak, itsatsi egiten direnak eta beroarekin bigundu eta poliki-poliki duten xaboa edo duten gantza edo erretxina askatzen doazenak. Batetik, orduan, kataplastak eta bestetik enplastuak.

E.- Hasiara batean esan dugu hauek guztiak agerpen farmazeutikoak direla. Baina bukatu dugu azalean erabiltzen direnak aipatzen?

J.A.- Ez, ez, ez, azalean asko daude. Batzuk aipatzeko, **lozioak**, bai bainuan erabiltzen ditugunak garbiketara hutserako edo beste batzuetan lozio horiek dira, adibidez, zorrien kontra, zorrien kontra lozioak erabiltzen dira. Beraz, botika bat erabiltzen da lozio forman, gehienbat ura duen substantzia bat da, gehienbat, e, eta gero ur horri, disoluzio horri eranstean zaio benetan efektua egiten duen botika. Edo izan daiteke **jela** ere bai, jela, edo...

E.- Zabaltzen dena?

J.A.- Hori da. Bainuan erabil daiteke, baina badaude beste batzuk erabat sendagai edo botika bezala erabiltzen direnak. Izan litezke **hautsak** ere bai, ondoak-edo ditugunean oinetan-edo. Orduan, azalean erabiltzen direnak asko eta asko dira, oso diferenteak.

.....

30 KIRRIMARROAK ETA ZIZIPAZAK

Esataria.- Gu hemen aritzen gara, jo eta ke, esan eta esan, hitz-jario etengabe. Baina, egia esan, badira hizketarako arazoak dituztenak ere. Iruditzen bazaizu, horietako arazo batzuk aipatuko ditugu.

Jabier Agirre.- Bai, oso ondo. Egia da, hitz egitea oso gauza naturala da, denok ikasten dugu ia-ia batere zailtasunik gabe hitz egiten hizkuntza batean edo bestean, baina ez gara konturatzen askotan hitz egiteak gure buruaren barruan zenbat gauza suposatzen dituen. Hau da, lehenbizi dago... Garunean badago zentro bat, zentro nerbioa bat, Brocaren area esaten zaiona, hizketa gobernatzeko duena. Gero agindua ematen zaio hainbat muskuluri, zeren eta pentsa, hitz egiteko mingaina modu batera jarri behar da, ahoskatu egin behar da, eta abar. Eta hori guztia normal-normal egiten denean, ez da batere problema, baina era bateko edo besteko problemak daudenean, muskularrak, nerbioak, eta abar, hor sortzen dira esan dituzun hitz egiteko dauden arazo horiek.

E.- Tira bada, has gaitzen eta ikus ditzagun arazo batzuk. Nondik hasiko gara?

J.A.- Bueno, ba arazorik larriena izango litzateke batere hitz egiten ez duena, **mutua**. Hori da **mututasuna**. Izan liteke arrazoi askotakoa, baina arrazoi bat edo bestea dela medio, pertsona horrek ezin du batere hitz egin. Beste batzuetan, mututasuna entzumenarekin lotua dago, hau da, pertsona **gor-mutua** izan daiteke. Orduan, gorra da, alde batetik,

ez du entzuten. Eta mutua da, ez du hitz egiten. Ez da jakiten askotan zer den lehenengo, mututasuna edo **gorreria**, zeren pertsona batek ez badu sekula entzuten hitz egiten, nekez hitz egingo du. Orduan, **gor-mututasuna** da gauza konbinatu bat, ez dakizu askotan, izan liteke sortzetikoa, izan liteke beste problema batzuegatik, eta ez dakizu askotan zer den lehenago.

E.- Zerk eragin duen zer, ezta?

J.A.- Hori da. Eta gero, beste azkeneko problema nagusi bat izan liteke **hitz-toteltasuna**: pertsona batek zailtasuna dauka, eten egiten da edo gauza batzuk esatea kostatzen zaio. Ez dauka hiztun normalak daukan jario normala. Orduan, edo erabateko problema, mututasuna, edo entzun eta hitz egiteko problema, gor-mututasuna, edo hitz-toteltasuna, pixka bat hitz egiteko jario hori, kadentzia edo erritmo normal hori etena daukanak.

E.- Badira hauetaz gainera gaizki ahoskatzearekin lotutako beste akats batzuk ere, esaterako, kontsonante jakin batzuk gaizki ahoskatzea, ezta?

J.A.- Bai, bai, hori hizkuntza guztietan, eta nik euskarazkoak aipatuko ditut, euskaraz nola esan zaien kontu horiei. Oso forma bitxiak dira. Adibidez, batzuk dira r-a gaizki esaten dutenak (ja, je eta horrelakoak) eta horiei hiztegiatan —nik ez dut sekula entzun— **kirrimarroak** esaten zaie. Zergatik? Bada r asko dauzka hitzak, *kirrimarroa* edo *karramarroa*, eta horiek dira ja, je, ji, jo... horrela hitz egiten dutenak. Hori r-arekin. Eta gero beste akats bat nahiko arrunta, euskaraz baino gehiago akaso kasu honetan espainolez, Andaluzia aldean-eta horrela, da -s- eta -z- ez ondo bereiztea. Hots eta hotz, sa eta za, edo za esan ordez sa, eta horrelakoak. Eta horiei euskaraz **zizipazak** esaten zaie. Begira, zer polita, e? Bada, kirrimarroak r-aren problema dutenak eta zizipazak s eta z elkarrekin nahasten dituztenak.

E.- Tira bada, kirrimarroak eta zizipazak, gaur gure hiztegiaren barneratuko ditugun bi hitz eta bi izendapenak.

.....

31 A ZE PAREA, AREA ETA BAREA

Esataria.- “A ze *parea*, *karakola* eta *barea*”. Horrelaxe dio euskal esaera zahar batek. Gaurkoan, ordea, karakola alde batera utzi eta area eta barea aipatuko ditugu. Zer dira, ordea, bi horiek?

Jabier Agirre.- Ba, horiek dira gorputzean dauzkagun bi organo esateko garai batean proposatu genituen hitzak. **Area** proposatu genuen *páncreas* esateko; gaur egun ez dugu horrela esaten, gero ikusiko dugu zergatik, eta **barea** proposatu genuen —ez guk, e, horrela zetorren hiztegieta— *bazo* esateko. Beraz, dira bi organo gorputzean, sabel aldean dauzkagunak.

E.- Eta zergatik aldatu duzue garai bateko erabilera hori?

J.A.- Ba, beti bezala, Euskaltzaindiak, guri behintzat, gauzak argitu dizkigulako. Guk uste genuen area eta barea, eta hiztegi batzuetan hala bilatu genuen, bi gauza diferente zirela, eta gainera bi organo horiek ondoan daude, eta jendeak ez dakit berez nahasten zituen edo hizkuntzak nahastu zituen. Eta area esan genion pankrea izeneko organo horri, baina Euskaltzaindiak esan zuen are eta bare funtsean hitz berdina zirela, eta ez zegoela erabiltzerik are bare erabili behar genuen tokian. Orduan, are erabili orde, **pankrea** erabiltzera behartuta ikusi dugu gure burua eta bare hitzarekin berdin segitzen dugu.

E.- Hain diferenteak dira bata eta bestea, area eta barea?

J.A.- Bai, diferenteak dira. Ez dakit jendea noraino jabetzen den, baina, adibidez, pankrea da guruin bat, organo bat, intsulinarekin zerikusi handia duena, eta intsulinak diabetesa ekartzen du, eta gaur egun hasi dira hitz egiten agian horko zelula batzuk transplantatu daitezkeela, eta horrek konponduko lukeela diabetesaren kasua eta abar. Beraz, lotu behar dugu area, pankrea gaur egun esaten duguna, diabetesarekin, intsulinarekin. Eta gero, bestetik, daukagu barea, barea jendeak gehiago ezagutzen du, ezker aldean dago eta korritzerakoan edo ariketa egitekoan hor jartzen zaigun halako zera horri ere *barea piztu zaio* edo *bareak egin dio* esaten diogu. Eta barea da beste organo bat, beste guruin bat eta horren funtzio nagusia odolarekin lotua dago: globulu gorriak suntsitzen ditu, hemoglobina askatzen du, eta abar. Eta esanplu txiki... edo beste tontakeria bat esateko..., edozein istripu dagoenean kotxean, adibidez, zirkulazioan, askori *barea lehertu* egiten zaie eta *barea kendu* egiten zaie. Orduan, batetik, batek diabetesarekin zerikusia dauka eta besteak odolaren zirkulazioarekin eta abar.

E.- Beraz, guk hasieran esaera zahar bat ekarri dugu gurera, baina aldatu egin beharko genuke, ez? Kasu honetan horrela geratuko litzateke, eta ea ez dugun hanka sartzen: “A ze *parea, pankrea eta barea*”?

J.A.- Bai, pixka bat galdu egiten du, belarriak... lehenago polita zen *area eta barea*, baina nik uste gaur egun zehatzagoa litzatekeela *pankrea eta barea* esatea.

.....



32 PRESERBATIBOA ESATEKO ZAILTASUNAK

Esataria.- Garai batean hizpide ugari sortzen zen preserbatiboak erosteko zailtasunen inguruan. Orain, zorionez, erabat normalizatu da kontu hori.

Jabier Agirre.- Bai, bai, garai batean problema zen botikara joatea eta ausartzea preserbatiboak eskatzen, gaizki ikusia zegoelako, edo botikariak ez zizulako emango eta abar. Gaur egun, ordea, nik uste dut toki guztietan daudela makinak horrelakoak saltzen dituztenak, saldu edo banatzen dituztenak, eta problema ez doala hortik gaur egun.

E.- Nola izendatu orduan? Zeren zu zara hiztegieta aditua, beraz, zuk esango diguzu.

J.A.- Bai, eta kontua ez da zuk eta nik erabaki dezakegula bakarrik, hau da, guk eman dezakegu gauza bat, baina gero normalean jendeak kalean erabili egiten du. Orduan, bilatu behar da forma bat denontzako balioko lukeena, hau da, hiztegi batean bota dezakezu gauza bat —eta badaude botata hiztegieta—, baina gero kontua da jendeak edo bikote batek erabili behar duenean, edo gazteak txisteak egiteko eta abar, nola erabiltzen dituzten.

E.- Baina kasu honetan arazoa ez da Euskal Herriarena bakarrik, ezta, gainontzeko hizkuntzetan ere gauza bertsua gertatzen da.

J.A.- Bai, bai, noski. Maila teknikoan, medikuak edo sal-tzaileak, edo zer esango dizut nik, tratatu bat egitekoan, izen bat eman behar zaio, eta horren izen normala nik uste hiztegieta eta horrela nik uste dagoela batetik edo **preserbatiboa**, beste hizkuntzetan bezala, hiztegieta ikusi ditut **jagon-gailua** eta horrelakoak, baina nik uste jendeak horiek ez dituela erabiltzen. Eta gero bestela dago, forma arruntagoa nahi baldin baduzu, **kondoia**. Horiek izango lirateke edozein adinetan, edozein mailatan erabiltzeko moduko hitzak, hitz neutroak, bere kargatxoarekin, baina...

E.- Baina hor tartean beste adiera asko daude, ezta? Esan nahi nuke punta-puntako hitz tekniko horretatik kondoira bitartean...

J.A.- Bai, bai, eta horiek dira, nik uste, jendeak erabili ez eta agian galdu egiten dituenak. Hor bada lan bat

Ramon Etxezarretak egin zuena garai batean, *Hiztegi erotikoa* izena zuen garai hartan, eta nik uste jendeak ez diola behar lukeen kasua egin. Eta ni aritu naiz hor begira eta izugarritzko perla politik bilatu ditut, preserbatiboa edo kondoia esateko –bilduta daude, ez ditu berak asmatu, jendeak esan dituelako daude–: **galtzetina, gomazko galtzetina, zakua, txanoa, txapela**, oso hitz politik eta nik uste bizi-biziaz gauza horri, erreparo eta guzti esateko.

.....

33 INORK ESATEN AL DU PNEUMONIA EUSKARAZ?

Esataria.- Zuek medikuek askotan erabiltzen dituzue hitz arraro samarrak, eta herritar arruntek erabiltzen ditugun hitzak alboratu egiten dituzue. Hori gertatzen da, adibidez, **pulmonia** hitzarekin.

Jabier Agirre.- Bai, bai, egia da, baina horren aurretik esan behar da pixka bat ia jendeak zer ulertzen duen pulmoniarekin eta nik zer esan nahi dudan beste hitz batekin. Pulmonia euskaraz, pentsa, oso hitz arrunta eta oso hitz sartua da. Gero ikusiko dugu zer daukadan horren kontra eta horren alde. Jendeak **plumonia** ere esaten du. Hori da seinalea hitz hori oso sartua dagoela euskaraz, horraino aldatzeko. Zer gertatzen da? Pulmoniak edo plumoniak edo medikuok erabiltzen dugun pneumoniak esan nahi du biriketako inflamazio edo hantura jakin bat. Orduan, *biriketako* hitza, normalean, espainolez hartu dugun *pulmón* hori grekoz *pneumon* da, eta orduan euskaraz behartuta gaude ez *pulmonia* baizik eta *pneumonia* hartzera. Hori da pixka bat gure zalantza, jendeak *pulmonia* esaten duenean guk *pneumonia* esaten diogu, baina gauza bera da.

E.- Eta hori euskararekin bakarrik gertatzen da?

J.A.- Ez, ez, ez, pulmonia espainolez berdin-berdin erabiltzen da, eta nik orduan, mediku bezala, jakin beharra daukat niregana datorren herritarrak ez duela pneumonia esango, ez euskaraz eta ezta agian gaztelaniaz ere. Orduan, nik ezin dut pulmonia hitza baztertu —ez dut erabiliko, baina ezin dut baztertu badakidalako nik gaixoarekiko daukadan harreman honetan pulmonia hitza errazago ulertuko duela berak nik pneumonia esanda ere. Orduan nik jakin behar dut pneumonia / pulmonia hitz-joko hori egiten.

E.- Eta euskaraz zein hitz erabili beharko genuke?

J.A.- Bueno, ba nik zuri nekez esango dizut **pneumonia** erabiltzeko, zuk betidanik eta inguruan, han eta hemen, pulmonia entzuten baldin baduzu. Nik ez nituzke beste hitz batzuk gehiago zabalduko, zeren beste hitz batzuk, nahiz eta hiztegietan egon eta nahiz eta batzuei gustukoak iruditu, *birikeria* modukoak, horiek guztiak ez dira batere zehatzak, eta nik behin erabiltzekotan erabiliko nuke pneumonia edo, bestela, nahiago nuke... *alborengo*, beste bat. Alborengo zer da? Bada, garai batean pulmoniak ematen zuen, pulmoniak esan dut, e, pneumoniak ematen zuen halako kostaduko mina, eta orduan alborengo hitzak hori adierazten du, baina nik uste gaur egun bat erabiltzekotan pneumonia erabiliko nukeela maila teknikoan eta bestela pulmonia, normalean zuek, herritarrek, erabiltzen duzuelako.

.....

34 ETXEKO BOTIKINA “EUSKARAZ” BETETZEKO

Esataria.- Aurreko batean agerpen farmazeutikoen inguruan solasean aritu ginen. Baina ez genituen den-denak agortu.

Jabier Agirre.- Ez, ez, gehienbat azalekoak aipatu genituen: kremak, pomadak, ukenduak eta abar. Gaurkoan, ordea, beste agerpen farmazeutiko batzuk aipatu ordez nahiago nuke adibidez etxean non gordetzen diren eta zer gorde behar genukeen aipatu.

E.- Ea, ba, zuk azaltzen diguzun. Etxean non egoten dira bada guzti horiek gordeta?

J.A.- Bai, denok dakigu, kontua hitza da.

E.- Hori da, nola esan horri.

J.A.- Bai. Nola esango diogu, ba, etxean erabiltzen ditugun botikak edo erabiltzen ditugun beste tresna horiek gordetzeko traste horri? Ba, **botikina** dago, eta batzuei ez zaie gustatzen botikina espainolaren kutsua daukalako eta hor ari dira botika-ontzia, botika-kutxa, senda-kutxa eta nik zer dakit. Nik botikina erabiltzeko ez daukat inolako problemarik. Botikina egia da espainola dela, egia da bukaera hori euskaraz ez dela oso arrunta, baina botikina da nik uste gaur egun jende guztiak erabiltzen duena.

E.- Ireki dezagun, ba, botikin hori. Zer sartu behar dugu bertan?

J.A.- Bueno, sartu, nik uste, ahalik eta gauza gutxien hobe. Botika erdi bukatuak, fuera. Zer sartuko nuke? Ba, etxeko sendaketak edo istripua gertatzen denean egiteko beharrezkoak diren **alkohola**: ezinbestekoa da gauzak garbitzeko; **ur oxigenatua**, zauria zikindu edo infektatu baldin bada pixka bat desinfektatzeko, **merkurokromoa**, garai batean gorria izaten zen, oso zikina.

E.- Oso deigarria zen, batez ere.

J.A.- Bai, eta zikina. Gaur egun badaude kolore gabe-koak, efektu bera egiten dute. Izen komertzialik ez dut emango, baina horrek ere egon beharko luke. Aipatu ditugu alkohola, merkurokromoa, antiseptikoren bat...

E.- Horiek orokorrean, oro har esanda, baina esate baterako kurak egiteko edo sendaketak egiteko zer gehiago beharko genuke?

J.A.- Ba, beharko genuke batetik ura eta xaboia, horrela garbitzen direlako ondoen zauriak. Eta gero hasi beharko genuke jada pixka bat lehen esan dugun desinfekzioak egiten. Zerekin egingo dugu? Ba, egingo dugu **guata** batekin, beno guata edo uata, guata espainiarari begira eta uata frantsesari begira. Nik uste dut guretzat guata arruntagoa dela, eta horrekin egin beharko genuke **gaza** bat hartu, gaza badakigu zer den, substantzia garbi hori, desinfektatzeko, gero **esparatrapua**, horrela esaten zaio euskaraz, eta gero **tiritak**. Batzuei ez zaie gustatzen espainola delako, eta batzuk **lotura itsaskorrak** erabiltzen dute. Ez dakit, tiritak esateko lotura itsaskorrak erabili? Nik uste dut tiritak esanda jendeak errazago ulertzen duela.

E.- Bueno, ba, ikasi dugu botikinean zer sartu behar dugun.

.....

bila ibili eta aurkitzen ditugunean erabili eta ez kanpotik, besterik gabe, kanpokoek esaten duten bezala erabili.

E.- Oena adibide batzuk jartzea izango da.

J.A.- Bai, bai. Adibidez, bihotzak zer soinu egiten du beste hizkuntza batean? Ba ez dakit gaztelaniak edo frantsesak zer emango duten, baina euskarak **taup-taup** egiten omen du. Eta, pentsa, ekarriko dizuet Bizkaiko koplak, liburu batean bildua, ez nik buruz dakidalako: "Neskak entzun ezker / danbolinen hotsa / taup-taup bular-barruan / dauke euren bihotza". Agian taup-taup ez da oso ezaguna, baina bihotzak **taupada** egiten duela denok dakigu. Beraz, bihotzak taupadak baldin badauzka eta taupatu egiten baldin badu logikaz horren soinua taup-taup da. Orduan, euskarak hori eman du. Ez dugu zertan joan behar espainolak ez dakit nola egiten duela, edo frantsesak... Badakigu euskarak taup-taup egiten duela... Hortxe daukazu bat.

E.- Bihotzaren adibidea ekarri diguzu, koplak eta guzti. Baina besterik bururatzen al zaizu?

J.A.- Bai, beste bat..., bueno, ez da zehatz-mehatz onomatopeia bat, baina euskaraz **atxis** egiten dugunean zer egin dugula okurritzen zaizu zuri?

E.- Doministiku.

J.A.- Eta zer da **doministikua**? Doministikua ez da euskara, doministikua teoriarik da garai batean kortesiaz zuk doministikua egiten zenuenean jendeak esaten zizun *Dominus tecum* (Jaungoikoa zurekin). Eta hortik poliki-poliki euskarak bere egin du, eta garai batean latina zen *Dominus tecum* hori orain doministiku bihurtu da. Hor euskarak ere egin du bere bidea. Usina edo doministikua da soinua, atxis edo soinu horren izena, baina doministiku berez euskarak ez zuen berea eta jan egin du.

E.- Eta amaitzeko, ba al duzu beste perlarik?

J.A.- Bueno, perla baino gehiago... Beste bat okurritzen zait, eta hori da urak irakiten duenean egiten duen soinu hori, ez dakit nola, ba, euskarak **bor-bor** egin du. Orduan, okurritzen zait urak bor-bor egiten duen bezala, odola hipertentsioaren eraginez-edo aurrera doanean zirkulazioan, eta hala dago bilduta, bor-bor egiten duela. Beste perlatxo bat.

.....



35 BIHOTZAK ZE SOINU EGITEN OTE DU EUSKARAZ?

Esataria.- Onomatopeien edo hotsen mundua oso berezia da eta hizkuntza bakoitzak bere aldetik jokatzen du. Gauza bera gertatzen al da zuen eremuan ere?

Jabier Agirre.- Bai, bai, osasunean ere euskarak egin ditu bere bideak. Gertatzen da askotan ez ditugula ezagutzen, baina nik uste dut aipatuko ditudan batzuk jendeari oso ezagunak egingo zaizkiola. Nik honekin errebindikatu nahi dudana da euskarak bere bideak egin baldin baditu, hobe dugula horien



36 FROGA ETA PROBA EZ DIRA GAUZA BERA

Esataria.- Froga eta proba. Oso hitz ezagunak eta erabiliak dira, baina ez dira gauza bera.

Jabier Agirre.- Ez. Kasu honetan nik uste dut euskarari kalte egin diola inguruko hizkuntzen eraginak, hau da, frantsesez edo espainolez bi kontzeptu izatea; saiatuko naiz hori argitzen. Bi kontzeptu horiek izen berarekin izendatzen dituzte: *prueba* espainolez eta *épreuve* frantsesez. Orduan, euskaraz saiatu beharko genuke adiera baterako proba erabiltzen eta beste adierarako froga erabiltzen.

E.- Ea hori pittin bat gehiago zehazterik baduzun.

J.A.- Bai, adibidez, zu epaiketa batera joaten baldin bazara, juizio batera, eta zerbait demostratu behar baldin baduzu, zuk, edo epaileak edo abokatuak demostratu behar baldin badu, hor ez da proba kontua, hor froga kontua da, hau da, zerbait horrela gertatu dela, edo mutiko honen aita beste hura dela frogatzeko DNA probak egin behar dizkizutela, eta abar. Horiek guztiak frogak dira. Beraz, epaiketa munduan edo zerbait horrela dela demostratzeko erabili beharreko hitza froga da, **froga**, eta aditza **frogatu**. Orduan, hori izango litzateke *prueba* edo *probar* adieraren hitzaren adiera bat. Eta hori euskaraz nik uste froga eta frogaturekin erabili beharko genukeela.

E.- Eta **proba** hitza zein kasutan erabili beharko dugu?

J.A.- Proba da beste gauza bat. Zerbait egiteko proba, edo idi-probak edo horrelakoak... Medikuntzan, adibidez, gure mundura etorri, alergia daukazula frogatzeko medikuak egiten dizkizunak larruazalean **alergia probak** dira. Edo haurdunaldian emakume batek haurdun dagoela jakiteko egin nahi duen testa, zeren probaren beste sinonimo bat **testa** da, emakumeak ez du haurdunaldiaren froga egiten, baizik eta egiten du **haurdunaldiaren proba**. Eta noski, proba horrek frogatuko du agian emakumea haurdun dagoen edo ez.

E.- Beraz, gauzak argitze aldera, osasun-mundura etorri, zuen eguneroko erabileran probak egiten dituzue?

J.A.- Bai, gehienbat probak. Esan dizkizut batzuk, haurdunaldiko probak, edo alergiako probak... Baina beste batzuk aipatzeko ba **esfortzuko proba**, bihotzeko gaitza izan duzun edo ez jakiteko, gaur egun zoritxarrez gero eta gehiago egin behar dena. Edo edozein organok nola fun-

tzionatzen duen jakiteko, gibelean, edo biriketan edo medikuek leku berezietan egiten dituzten **proba funtzionalak**. Guretzat gehienbat probak dira.

.....



37 AZALEKO KONTUAK EUSKARAZ

Esataria.- Inork ez ditu gogoko baina nolabait ere izendatu behar dira. Larruazaleko gaitzak edo azalean agertzen diren koxkor horiek edo granotxoak euskaraz izendatzeko ba al dago hitz egokirik?

Jabier Agirre.- Bai, bai, badaude. Bilatu egin behar dira, e? Aurretik aipatu nuen batean dermatologiaren inguruan, azaleko gaitzen inguruan, izugarriko sinonimia eta nahastea dagoela, baina ez euskaraz bakarrik, beste hizkuntzetan ere bai. Zergatik? Ba, garai batean medikuak tresna gutxi zeuzkan diagnostikorako. Gaur egun juxtu kontrakoa gertatzen da. Eta garai batean askoz ere arreta gehiago jartzen zitzairen begiekin ikus zitezkeen gauzei. Orduan, larruazaleko deskripzioak eta larruazaleko gaitzen kontuak oso zabalak izan dira urtetan eta orduan hor alde batetik bestera, eskualdeka, zabaldu dira hitz batzuk eta gaur egun tokatzen zaigu horien artean bereizketak egitea eta halako gaitzi halako izen edo halako egoerari beste halako izen ematea.

E.- Eta bereizketak egiten nonbaitetik hastearren, orban eta orbain hitzak. Hauek gauza bera dira?

J.A.- Bueno, segur aski jatorrian euskaraz hala izango ziren, baina gaur egun hiztegi guztietan, eta Hiztegi Batuan behin eta berriz, bereizi egin dira. **Orbana** izango litzateke mantxa, zikina, larruazalean agertzen diren era guztietakoak, edo begian badaukagu orban horia esaten dena. Edo Down sindromea daukaten umeei badaukate halako orban berezi bat, orban mongolikoa deitzen dena. Beraz, orban, jendeak ulertzeko, mantxa edo zikina da. Eta **orbaina** da, behin zauri bat egin duzunean laban batekin edo bestela, hor hasieran zauria irekita dago eta gero poliki-poliki zauria ixten denean hor gelditzen den halako zarakar, edo kostra, edo ebakiondo hori, hori da orbaina. Jendeak hobeto ulertzeko, *cicatriz*. Beraz, orbana eta orbaina bi gauza diferente dira.

E.- Hori ulertu dugu, baina zer gertatzen da azalean agertzen diren mantxa txiki-txiki eta ugari horiekin?

J.A.- Horiekin ere... Hor beste aukera bat egin

behar izan dugu. Hiztegieta nik uste nahiko nahasian daudela, baina diferenteak dira. Jendeak ulertzeko, batzuk dira... pixka bat... ume ilegorriak asko edukitzen dituzte. Guk ere bai, baina ilegorriek izaten dituzte, espainolez esango dut, *peca*, hobeto ulertzeko. Horiek asko dira, eta horiei euskaraz izen bat eman behar zaie, eta hiztegieta bilatu dugu **orezta**. Horiek izaten dira... inolako problemarik ez dute, ez dute gaitzetzeko batere arriskurik eta abar. Gero beste batzuk daude oso antzekoak, medikuontzat ez hainbeste, baina kanpoko jendearentzat, eta horiek dira espainolez *lunar* esaten zaienak, batzuetan edukitzen dute ilea barruan txertatuta, antiestetikoagoak dira, latzagoak kentzeko eta abar, eta horiei euskaraz **orina** esaten zaie. Beraz, hor aukera bat egin dugu. Orina gauza bat esateko, *lunar* espainolez, eta *peca* espainolez edo frantsesez *tache de rousseur* esaten zaiona, hori da euskaraz orezta.

E.- Eta zer gertatzen da *karatxa*, *enorra* eta gainerako horiekin?

J.A.- Bueno, horiek beste gauza batzuk dira, horiei espainolez *verruca* esaten zaie, birus batek sortutako gaitzak dira, horiek larruazalean handitu egiten dira, gehienbat behatzetan edo aurpegian edo lepoan agertzen direnak. Horiek kendu egin behar dira, eta horien forma normalizatu, Hiztegi Batuan agertzen dena, da **garatxo**. Beraz, *karatxa* eta *enorra* eta horiek guztiak hor daude, baina bat erabiltzekotan nik **garatxo** erabiliko nuke.

.....



38 MARRANTA ETA MAFRUNDIA

Esataria.- Ez dakit hau den gaurko gaia aipatzeko sasoirik egokiena, baina askotan gripearekin batera beste gaitz batzuk ere ibiltzen dira hortik zehar. Zer esan dezakegu horien inguruan?

Jabier Agirre.- Zer esan nahi duzu, hotzeria eta kontu horiek, ezta?

E.- Hori da, dioxosozko marranta eta kontu horiek.

J.A.- Bai. Batetik dago **marranta** edo **hotzeria** edo **hoztura**. Horiek guztiak hiztegieta datoz, hitz normalak dira, eskualde batetik bestera, eta horiekin esan nahi duguna da espainolez *resfriado* esaten zaiona. Hau da, birus asko dira, berrehun birus baino gehiago dira, horiek sortzen duten egoera bat. Bost-sei-zazpi egun irauten ditu,

gehienbat sudurreko eta begietako sintomekin agertzen da, sudurra mukiz bete dago, sudur-jarioa dago, begiak gorriak, zabra handia egoten da... Eta horren kontra nekez egin daiteke ezer. Esaera zaharra da “horrelako egoera batek sei-zazpi egun irauten dituela botikarekin eta aste-bete botikarik gabe”. Beraz, tratamenduak ez du ezertarako balio.

E.- Beraz, eta ondo ulertu badut, katarroaren kontrako botikarik ez duzue ematen?

J.A.- Ez, ez, kontuz, kontuz, hori ez da katarroa, katarroa beste gauza bat da.

E.- Beste gauza bat?

J.A.- Bai. Lehen esan ditugunak, marranta, hotzeria eta dira gehienbat eztaurritik sudurrera bitarteko sintomak dituena, eztaurria gutxi, gehienbat sudurra eta begiak. Eta gero katarroa. Katarroa hitza ere jendeak oso zabal erabiltzen du baina...

E.- Dena da katarroa.

